

GIZARTE ZERBITZUAK BORTZIRIETAN

## Ezinduek lantegia eta erresidentzia izanen dute

Aspacek hamasei lagunendako erresidentzia zabaldu nahi du Beran, «egiazko premia dagoela ikusita». Gaur egun mediku kontsulta dagoen etxean bi solairu moldatuko dira eta lan horren aurrekontua 33 milioi pezetako da. Erdia Nafarroako Gobernuako Ongizate Departamenduak ordainduko luke eta bertze erdia Bortzirietako udalek. Alkatek begi onez ikusten dute egitasmoa.


Bertzalde, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen ekimenez, Enplegurako Zentro Berezia egingen da Lesakako Otsango

industrialdean. Bertze lantegietan nekez ariko lirakeen hogeitak lagunentzako lekua izanen du. Egitasmo hau hagitza aitziindua dago eta urte akabailarako lanean izatea espero da. «Izaera produktiboa izanen du eta bertze edozein lekuetan bezala, soldata eta gizarte segurantzia izanen dute hor kontrataturikoek» dio Jon Larretxea, Gizarte Zerbitzuko hezitzaileak. Berako Uxanek hezikuntza eta okupazio

**Beran egin gogo den erresidentzian hamasei lagunendako lekua izanen da. Enplegurako Zentro Berezia, berriz, Lesakan egingen da eta hogeitak laguneri ematen ahal die lana. Urte akabailarako lanean izatea espero da.**

zentro bezala ia 25 urtez egin duen lana osatzeko baliagarriak izanen dira erresidentzia nahiz lantegia.

4-5



### 3 Elkarriketa: Francis URRUTIA

Bi urtez zaharbertitze lanean aritu ondotik, Antxitonea trinketea berriz ere zabaldu du Francis Urrutia amaiurtarrak. Pilota plaza ez ezik, hotela eta jatetxea ere ireki ditu eta udan igerileku estalia eta gimnasioa izanen du.

### 6 Gaurkotasuneko Gaia: Hemengo familiek in euskara ikasten

Urtero-urtero euskaldunberriak etortzen dira hemengo familiek bere euskara lantzerantz. Leitzako esperientzia jaso dugu.

### 24 Kirola: Txaruta pilota taldeak urte bikaina

Baztan eta Malerrekako pilotariek 52 txapel jantzi zituzten iaz Euskal Herrian jokatuak txapelketa ezberdinetan.



# ORDOKI

## ALTZARIAK

**Estilo ugariko mobleak**

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia


**ESKAINITZA**

**BEREZIAK PLAZA**

**ZAHARREAN**

**ZAHARBERRITZE**

**OBRENGATIK**



**%10, %20 eta  
%30eko  
deskontuak**

**ERAKUSKETA**

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

**SALTOKIA**

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780

NA-31780 **LESAKA**

**A**

**Amairu enpotratuen  
erakusketa  
Bittirian**

**ttipi-ttapa**

**Eskaintzek hartzea eta  
erantzuten dituen datuak**



**Bidali TTIPI-TTAPA  
herritik kanpo  
bizi diren lagun  
edo familiakoei**

**Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu  
behar dira.**

**Eskatu informazioa.**

**(+34) 948 631 188**

## DATUAK.....

❖ Sortzez amaiurtarra da Francis Urrutia, Dolarekoa. Mexikon hemezortzi urte egin ondotik, Baztanera itzuli, Antxitonea zaharra erosi eta trinkete, jatetxe eta hotela zabaldu ditu.

❖ Oraindik ez du akitu lan guzia: Udarako gimnasioa eta igerileku klimatizatua ere zabaldu nahi ditu Antxitonean.

❖ Trinketean 400 lagun sartzen ahal dira, jatetxean 70 lagunendako lekua dute eta hotelean 25 gela dituzte.

❖ 1894an ireki zuten trinketea Isidro Iribarren eta Josefa Iturralde senar-emazteek, eta Hegoaldeko zaharrena dela erraten ahal da.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
AITOR AROTZENA

✍️ **Francisco URRUTIA** *Antxitonea trinketeko nagusia*

## "Edozein ekitaldi egiteko ateak zabalik izanen ditu Antxitoneak"

### NOLA GOGORATU ZITZAIZUN ANTXITONEA MOLDATU ETA BERRIZ ZABALTZEKO IDEIA?


Mexikotik urtero etortzen hasi nintzen oporretan. Han egoera aldatzen joan zen 1994. urte inguruan, animaleko inflazioa, debaluzioa eta segurtasun eza handia zegoen. Orduan erabaki nuen honat bueltatzea. Iruñean zerbait erostekotan egon nintzen, baina orai dela lau urte Antxitonea saltzen zela enteratu eta erosi egin nuen.

### KIROL ARLOAN ZEIN ERABILERA EMAN NAHI DIOZU TRINKETEARI?

Gazteak ezker paretean aritzen dira, baina trinketea ezagutzea polita da, hemen berean, kilometro gutira, hori baita gehien jokatzeko den pilota modua. Garai batean herri arteko txapelketak jokatzeko ziren. Orai Antxitonea kluba sortu eta Iparraldekoen kontra partidu batzuk jokatu nahi nituzke. Aurten ez dakit, baina heldu den urtean segurik *Elite 2001* zirkuitoan sartu nahiko nuke, bertze hamabi trinketeekin batera, tartean Baiona, Paris eta Bartzelonakoak.

### LEHENDIK ERE HISTORIA LUZEA DU ANTXITONEAK, EZ DA?

Ehun urte baino gehiago ditu, pentsa! Pilota



«Uztailean gimnasioa eta igerileku klimatizatua irekitzeko asmoa dugu».

partida izigarriak jokatu dira: 1922ko abenduaren 2an Dongaitz anaiak aritu ziren Leonis eta Artzeren kontra. Baigorriko baserri bateko hamar behiak jokatu zituzten. Trinketean seirehun lagun sartu ziren eta jendea kanpogan gelditu zen. Barnekoek leihotik egiten omen zuten oihi: "*badazi honenbertze*". Gero, 1936an, Nafarroako

Bertsolari txapelketaren finala jokatu zen eta baztandar bat suertatu zen txapelkun, Iruritako Juan Felix Iriarte. Gero, mutildantza eskola ere trinketean izan zen, Mauricio Elizalderekin. **HONELAKO EKITALDIEK ATEAK ZABALIK IZANEN DITUZTE ORAIN ERE ANTXITONEAN?**

Niri gustatuko litzaidake Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala berriz ere Antxitonean egitea. Laxoa elkartekoei erran nien paxaka txapelketa berez trinketean jokatu beharko litzatekeela eta

ez frontoian. Juanjo Atxari ere errana diot esku pilota txapelketaren bat jokatzeko. Pilotari profesionalak ere etortzen hasiak dira, pixko bat jokatzera: Otxandorena, Retegi... Ateak zabalik daude edozein gauza egiteko. Gero, gimnasioa eta igerileku klimatizatua ere izanen ditu. Honelakorik ez da inguru honetan eta jendea etorriko dela uste dugu. Uztailean irekitzeko asmoa dugu. Gero, urria igual izanen da, baina udarako irekia egotea espero dugu.

► *"Gu ezker paretean aritzen gara, baina, hemen berean, kilometro gutian, gehien bat trinketean aritzen dira. Hori ezagutzea polita da."*



GIZARTE ZERBITZUAK BORTZIRIETAN

# Ezinduentsat lantegia eta erresidentzia egin nahi dira

**Aspacek, Burmuin Elbarriak Laguntzeko Nafarroako Elkarateak, erresidentzia zabaldu nahi du Beran, "egiazko premia dagoela ikusita". Horretarako, gaur egun mediku kontsulta dagoen goitiko bi solairuak moldatuko lirateke eta hamasei lagunendako lekua prestatu. Aurrekontua 33 milioi pezetakoa da. Erdia Ongizate Departamenduak ordainduko luke eta bertze erdia Bortziritako Udalek. Bertzalde, Bortziritako Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearen ekimenez, Enplegurako Zentro Berezia eginen da Lesakan. Bertze lantegietan nekez ariko liratekeen hogeit bat lagunentzako lekua izanen du eta urte akabailarako lanean izatea espero da.**

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **AITOR AROTZENA**

**E**rresidentziari dagokionez, jarrera ona dago Bortziritako alkateen artean, Isabel Pardo, Uxaneko Zentroan ari den Aspaceko langileak adierazi digunez. Gaur egun beheitiko solairuan mediku kontsulta duen etxearen bi solairu moldatuko lirateke eta bertze bat egin, 33 milioi pezetako aurrekontuarekin. Erdia, Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate Departamenduak ordainduko luke eta bertze erdia Bortziritako Udalek. Bera zati horren erdia ordaintzeko prest azaldu da eta gainerakoa, biztanle kopuruaren arabera banatuko litzateke, herriz herri. Otsailaren 27an egindako bileran alkateek azaldu zuten, herrietako batzarretan eztabaidatuko da gaia, baina begi onez begiratzen dute proiektua. Izan ere, Isabel Pardok dioenez, «ez da luxu bat ezinduendako erresidentzia es-

katzea, premia-premiako zerbait baidzik». Jendearen beharren arabera, egonaldiak ere aldatuko dira. «Familiarik ez dutenentzat beraien etxebizitza izanen da, bertze batzuk astelehenetik ortzirralera egonen dira». Erresidentziak hamasei lagunendako lekua izanen luke. Behin obra eginda, Aspacek gestionatuko luke erresidentzia eta Ongizate Departamendutik ordainduko lirateke langileak eta gastuak.

## Hogeit lagun hartzen ahal dituen Enplegurako Zentro Berezia Lesakako Otsango industrialdean

Beran erresidentzia egiteko asmoa baldin badago, Lesakan ezintasun psikikoa edo fisikoa izan bainan lana egiteko gai diren pertsonen zuzendua izanen den Enplegurako Zentro Berezia egin nahi da. Bortziritako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan ari den Jon Larretxea hezitzaile-

ak adierazi digunez, «izaera produktiboa izanendu eta bertze edozein lekuetan bezala, soldata eta gizarte segurantzaz izanendu hor kontratatuturikoek».

Aspaldi ikusi omen zen inguru honetan gisa horretako zentro baten premia, baina orain arteko saiakerak ez zuten emaitzarik eman. Joan den urtean ekin zioten berriz ere Gizarte Zerbitzuetatik gabezi horri irtenbide bat bilatze lanari eta Aspacerekin lan egitea erabaki zuten. Larretxeak dioenez, «gisa honetako zentro ezberdinak bisitatu eta arlo honetan lan egiten duten elkarte ezberdinekin hitz egin ondoren, Aspacerekin lan egitea erabaki genuen. Elkarte honek lehendik baitu Beran ezintasun larriagoa duten pertsonendako zentroa, baita bertze lekuetan gisa honetako zentroak ere».

Aspaceko zuzendaritzak ongi hartu zuen proposamena, baina kontaktu eta azterketa batzuen ondoren, ezinbertzekoa ikusi zuten lokal publiko baten beharra, bertzeala hasierako inbentsio izugarriak ezinezkoa eginen zuelako honelako proiektu batean sartzeari. Mankomunitatetik, orain arte zaborra biltzeko erabili den pabilioia eskaini zitzaion, Lesakako Otsango industriagunean dagoena. «Momentu honetan pabilioi hori egokitzeko proiektua eskatua dago eta inguruko enprekin kontaktua hasi nahi dira, hemen bertan lana lortzeko» dio Larretxeak. Pabilioiak duen lekuaren arabera, hogeit lau-

nek egiten ahal dute lana bertan. «Ideia goizeko 8etatik arratsaldeko 5etara aritzea da eta bertan bazkalduko dute» erran digu Jon Larretxeak.

Urte akabailarako zentroa martxan jarri nahi da. Bertan lana egiteko, Minusbalia ziurtagiria behar da. Egoera horretan 18 lagun omen daude Bortzirietan. Erdia baino gehiagok 30 eta 40 urte bitartean ditu. Informazio gehiago behar izanez gero, Gizarte Mankomunitateko 948 635036 telefonora (Jon) deitu behar da.

Enpresa ezberdinendako gisa guzietako lanak egiten dira enplegurako zentro berezi honetan eta urte bukaerarako lanean aritzea espero du Isabel Pardok. «Proiektua hagitiz aitzindua dago eta hori martxan jarriko da dudarik gabe. Gizarte Zerbitzuko jendea ere hagitiz ilusionatua ikusten dut proiektuarekin. Pabilioa hor dago, obra nola egin ikusten ari dira eta hori urte akabailarako eginen da. Erresidentzia, aldiz, dirulaguntzen menpe dago, baina hor ere baikorrak gara».

Enplegurako Zentro berezia, gainera, ez da lanpostua bakarrik izanen. Iruñeko jendeak gisa guzietako aholkularitza eskaintzen die langileei: Gida-baimena ateratzeko ahalmena baldin badute lagundu, pisua erosteko laguntzak, bizi-proiektu bat aitzinera ateratzeko laguntza orokorra izanen dute. «Ezkonduta eta guzi egin diren bikoteak badira. Proiektu osoa da» Isabel Pardoren ustez. ■

## Uxanek ia 25 urtez egindako lanaren beharrezko osagarriak



1977an sortu zen Uxane. Etxean burmuin elbarriak zituzten senideak mugitzen hasi ziren eta Gipuzkoako Aspacerekin harremanean jarri ziren. Monitoreendako lehenbiziko formazio ikastaroak Donostian egin zituzten. Baina Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen laguntzak ezin zituzten eskuratu eta Nafarroako Aspacerekin hasi ziren, 1978tik aitzina. Hasiera batean hezkuntza bereziko zentroa zen eta haur ttikiak izaten zituzten. Pedagoga bat, erreabilitazioa egiteko fisioterapeuta eta bi monitore zeuden. Baina arazo hauek dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integratzeko legea egin zen 1989-90 ikasturtean. Orduan ttikiak eskola publikora pasatu ziren eta Uxane okupazio zentro bihurtu zen.

Gaur egun, Berako Uxane Okupazio Zentroan hemezortzi lagun ari dira, Isabel Pardo eta Mila Bidegain monitorean gidaritzapean. Uxanera joaten direnei ez zaie kobratzen, garraioaren eta janariaren zati bat bertzerik ez. Eskaintzen dituzten aholkuak eta diagnostikoak ere dohai-

neko zerbitzuak dira. Beraien ardurapean dauden gehienek ez dute lanpostu arrunt batean aritzeko aukerarik, baina lantxoak egiten dituzte Alco eta bertze zenbait lantegiendako. Helburu nagusia pertsona hauen orduak okupatzea da, zerbaitetan aritzea baina produkzioaz kezkatu gabe, etxekoei bere zereginetan segitzeko modua eskainiz, bidenabar. Lesakan egingo den enplegu zentro berezian, aldiz, lanerako ahalmena duten pertsonak ariko dira, zortzi orduz beraien kontratu eta aseguruarekin, hila-beteko oporraldiarekin eta guttieneko soldata kobratuko dute bederen. «Gaur egun dagoen kompetentzia ikusita jende honek lantegi arruntetan ez lukete aukerarik izanen. Aldi berean, Uxanekoa eskamar gelditzen zaie. Gai den jendea hasiko da, denek ez baitute zortzi orduz lanean hasi nahi. Hemen dirua zertarako den ez dakien jendea badugu, orduan ez du balio lanean hastea. Baina badira bertze batzuk pisu bat erosi nahi dutenak, bere bizimodua egin nahiz eta zailtasunak izan, horientzako izanen da enplegurako zentro berezia» dio Isabel Pardo ardura-dunak.



Isabel PARDO Uxane zentruko zuzendaria

### «Bai erresidentzia, baita Enplegurako Zentro berezia ere premiazkoak dira»

**Bortzirietan burmuin elbarriendako Erresidentzia eta Enplegu Zentro berezia egiteko asmoa dago. Premia handia al da?**

Biek behar-beharrezkoak dira. Enplegu zentroan lanean ariko diren aunitz erresidentzian bizitzen jarriko direla iduritzen zait. Gurasoak falta zaielako edo independente izan nahi dutelakoz hasiko dira lanean, baina pisu batean bakarrik bi-

zitzeko gai izanen dira? Batzuk ez, zein etorkizun izanen lukete? Erresidentzia oinarritzea da, behar-beharrezkoa, bere kabuz bizitzeko etorkizunik ez duen jendea hartuko duelako. Nire ustez lehentasun gehiago du erresidentziak, baina

enplegu zentroa ere behar da eta biak aitzine-aterako dira.

**Uxaneren lana osatzeko baliagarriak izanen dira?**

Uxanek egunean okupazioa ematen du, baina batzuentzat murriztuz gelditzen da. Diru pixko bat irabazten dute,

baina ez soldata bat. Gehixeago behar dutentzat hor egonen da enplegu zentro berezia. Gero, hemendik etxera joaten dira eta batzuk, egitan, egoera negargarriak bizi dira. Horientzat erresidentzia bizi duina izateko aukera bakarra da.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

### Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

### Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

### e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Iri-

goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotze-

na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arotze-

na, Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fer-

nandez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor,

Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri, Frederick

Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Joseba

Olagarai, Nerea Mitxelorena,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafar-

roa, Mikel Bezunartea, Belarra...

**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde**

**Laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mankomunitatea, Zugarra-

murdikoko Akelarre Elkartea...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 160 Libera

Europa ... 4.000 Pta.

Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Hemengo familiekin euskara ikasten

#### Lehendabizian kontu pixka batekin ibili behar da, mantso hitzegin, galdetu...



Vitoriano IPARRAGIRRE  
Urtotxiki baserria. LEITZA

Guk azken hiru urtean hartu ditugu euskara ikasleak, bat bilbotarra,

Getxoko bertze bat eta bi gasteiztar. Karrape irratian izan genuen egonaldi hauen berri eta Leitza-ko Euskaltegian eman zidaten informazio gehiago.

Kristoren suertea izandu dugu, oso neska majak tokatu zaizkigu. Guk beti neskak hartzen ditugu, neunek nola lau alaba dauzkaten, nahiago dugu neskak izatea. Baserrira etorri eta gurekin edozein lan klasetan aritzeko ez dute erreparorik izaten.

Lehendabiziko bi egunetan ixilik xamar egoten dira, lehen egunean bereziki ez dute apenas hitzik egiten. Lehendabiziko neskarekin gu gerone ohartu ginen afaltzeko tenorean bera arraro xamar zegoela, deneri begira. Orduan galdetu nion "ulertzen duzu guk hitzegiten duguna?" eta berak ezetz. Beraz geroztik kontu pixka batekin ibiltzen gara lehendabiziko egunean, mantso xamar hitzegin, galdetu... baina bigarren egunerako jartzen dira oso poliki.

Baserriko lasaitasuna estimatzen dute gehien. Zortzigarren egunerako osotara erlajatzen dira eta ikaragarri gustatzen zaie hemengo bizimodua.

#### Emakumeei ulertzeko ez nuen arazorik, baina gizonekin izugarria zen



Maria CABALLERO  
Ikaslea. BILBO

Ni birritan egon naiz Leitza, 99an eta iaz, baina aurretan ez dut uste

errepikatuko dudarik, lanean ari naizelako. Nerretzat oporrak bezala izan ziren Leitza-koak, primeran pasatu nuen. Familia-koa izango banintz bezala hartu ninduten, oso abegikorrak ziren etxe-koak. Niretzat baserri-koak ahizpak eta guraso euskaldunak bezala ziren.

Euskarari dagokionez arazo txiki batzuk izan nituen hasieran, batez ere gizonekin. Emakumeekin ez neukan arazorik, baina gizonekin izugarria zen. Beharbada azkarrago hitzegiten dute eta itxiagoa zen beren hizkera. Egia esan mintzaira ez dut gehiegi hobetu, baina belarria asko landu dut, ulermena. Berehalaxe ikasi nuen "gara" esan beharrean "ga" esaten...

Eskaria bidali nuenean herrian egotea eskatu nuen, eta ez neken Urtotxiki baserria zela. Ailegatzetan txundituta gelditu nintzen, herritik 3 kilometroro dagoelako. Halere gero herrian ez nuen denbora asko pasatu, gehienbat baserrian egon nintzen, eta esperientzia ikaragarria izan zen. Goizeko 7etan behiak izteko makinarekin... berezia zen.

#### Egonaldi hauekin ikasleen hizkuntzak ikaragarriko freskotasuna hartzen du



Kontxi ZOZAIA  
IKA Euskaltegia. LEITZA.

Hiri eta herri erdaldunetan euskara ikasten ari den ikasleak ar-

azo franko izaten du, edozein hizkuntza ikasteko praktikatzeko ezinbestekoa baita. Horretarako aukera desberdinak ditu: lehendabizikoa eta garrantzitsuenetakoa euskaltegian hartzen dituen eskolak. Udako barnetegiek ere, aukera ezin hobea eskaintzen dute euskaraz mintzatzeko eta bizitzeko, edo bestela, familia euskaldun baten etxean hilabete bat igarotzea.

Aukera hauek guziak konparatuko bagenitu, alde onak eta txarrak agerian geratuko liriteke. Barnetegira heldu den ikaslearentzat esperientzia erosoagoa izan daiteke. Barnetegietan ez bezala, familia batekin hilabete bat pasatzea erabaki duenak, bestelako zailtasunak gainditu beharko ditu. Batetik, euskalkia erabat arrotza egiten ahal zaio-lako eta bestetik, baserriko bizimoduan eta familia batekin bizi beharrak ere ahaleginak eskatuko dizkio.

Halere, familia batekin hilabetea igaro ondoren ikaragarria da hizkuntzari eman diezaioketen freskotasuna, batez ere ulermenean, ahoskeran, doinuan eta espresibitatean.



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Astelehenerdik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

# ttiipi-ttapa ren zerbitzu komertzialak

LAN

## KOMERTZIALAK

Kartelak, boletuak,  
fakturak, bisita txartelak,  
aldizkariak, egutegiak, liburuak,  
katalogoak, kartazalak eta  
paperak, buzoiratzeko  
publizitate  
orriak,

### FOILETOAK

Bi orrikoak, hiru  
orrikoak, hiru  
koloretan  
eginak,  
zuribeltzean,  
offset-ean edo  
fotokopietan...



### KARTELAK



Neurri, kolore eta  
paper  
desberdinetan

### ALDIZKARIAK

Komeni zaizun  
neurri eta  
kopuruan, zure  
gustora diseinatuak



### INPRIMAKIAK

Kartazalak,  
buzoiratzeko paperak,  
egutegiak,  
errekordatorioak



**TTIPI-TTAPA  
FUNDAZIOAK  
zerbitzu egoki  
eta profesionala  
eskaini nahi die bere  
lagun eta bezeroei.  
Horretarako sortu du  
KULTURKARI, zuk behar  
duzuna momentu batean  
egiteko, zure gustura  
diseinatu eta merke.  
Deitu lasai, eskatu  
aurrekontua eta ikusiko duzu!**

+ 948631188



# KULTURKARI

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra 01eko otsailak 21

«Ez da normala goi mailako kirolari bat egunero bestaz besta ibiltzea. Nire ustez, gehiegi ibili nintzen Iruñean eta gero eta handiagoa egin den fama txarra sortu zait eta horrek kalte handia egin dit. Kritika aunitz mereziak nituen, baina hortik niri ibilaldiei buruz idatzi diren astakerietara diferentzia handia dago. Mikel Goñi ez da Jaungoinkoa, baina ezta gorotz puska bat ere».

**Mikel GOÑI**  
Oronozko pilotaria  
Diario de Navarra 01-02-21

«Banaka joaten baldin bazara, ondo-ondotik pasatzen dira ibilgailuak. Binaka edo taldeka joanez gero, bozinaoak eta oihuak aditzen dituzu, baina hori frenatu ondotik. Nahiago dut irainak aditu autoek azpian hartzea baino».

**Patxi VILA**  
Berako txirriindularia  
Diario de Noticias 01-02-20

«Enpresa beti ongi portatu da nirekin, baina oraingoan lehenxeago abisatzen ahal zidaten».

**Joxe Jabier TABERNA**  
Lesakako pilotaria  
Diario Vasco 01-02-21

- ◆ **Berastegin jaio eta urte batzuetan bertan bizi. Naparra edo giputxia sentitzen zara?**
- ◆ Hemen nagoenean naparra, baina hara joaten naizenean erdi giputxie.
- ◆ **XXI. mendeko «super-hiper...» neska al zaitugu?**
- ◆ Nere ustez bai, modan egotea asko gustatzen zait.
- ◆ **17 urte. Adin «ero-ero» horretan nola bizi zara?**
- ◆ Gustora, eta adin hau pasatzean, ahal balitz errepikatu egingo nuke.
- ◆ **Zure bizimoduan beste sexuko pertsonak zer tokia daukate?**
- ◆ Momentu honetan garrantzi handia dute.
- ◆ **Ikasketetaz gain, zer erreponsabilitate gehiago dituzu?**
- ◆ Oso gutxi, nahiko daukat Batxilergoa aurrera ateratzen.
- ◆ **Familia hitzak zer gogorarazten dizu?**
- ◆ Maitasuna.
- ◆ **Ze mozorro eta parranda egin dituzu aurten Tolosako inauterietan?**
- ◆ Aste guzian Tolosan egon naiz, baina mozorrotu egun batean, aztia.
- ◆ **Aktore, musiko eta idazle baten izenak.**
- ◆ Leonardo di Caprio, Mikel Urdangarin, Bernardo Atxaga.
- ◆ **Hitz batean adieraz nola ikusten dituzun asteburuko parrandak?**
- ◆ Espezialak.
- ◆ **Ze sentiarazten dizute alkola, drogak, sexua hitzek?**
- ◆ Plazerra.
- ◆ **Bestondoa pasatzeko aholku on bat?**
- ◆ Ongi bazkaldu eta siesta on bat.



Itxaro GEREÑO

Ikaslea  
ARESO



**PAGOLA**  
TXISTORRAREN  
IZENA

© 948 630 054  
Alzateko Plaza, 2  
BERA

**Lanchas**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



**ZALAIN**  
JATETXEA

Zalain Auzoa  
© 948631106  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**

**PIKABEA**  
Molinero drogerian galdetu *pinturak*

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**belardenda**  
Mediku naturista kontsulta  
Masajista

*Haritza*

Legia I, behea • BERA • © 948 630652

**EKAITZA**  
Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin

Terraza eta plater konbinatuak

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**





## KULTURA

# Nafarroako Bertsolari txapelketako igande honetan hasiko da Elizondoko Antxitonean

Finala apirilaren 1ean izanen da Berako pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, martxoak 11, arratsaldeko 4,30etan Elizondoko Antxitonea trinketean egingen den saioak hasiera emanen dio aurtengo Nafarroako Bertsolari txapelketari. Mikel Altzuart, Ekhiñe Etxepeteleku, Iñigo Ibarra, Jean Louis Harinordoki «Laka», Fermin Mihura eta Julen Zelaieta ariko dira saio horretan. Hurrengo larunbatean, martxoaren 17an, Lodosako Kultur Etxean egingen da bigarren saioa, Nerea Bruño, Oskar Estanga, Ekintza Landa, Joxema Leiza, Joxe Juan Zubieta «Etxabe» eta Aritz Saraguetarekin.

Txapelketa, berez, martxoaren 2an hastekoa zen Lodosan, baina prentsurrekoa emateko zegoela ikusirik eta propaganda aldetik hutsune handi xamarraz zudela oharturik, Nafarroako Bertsosale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak txapelketaren hasiera atzeratzea erabaki zuen.



Amets Arzallusek irabazi zuen joan den urteko txapelketa. Jagoba Manterola

### BERTZE HAMAR BERTSOLARI ZUZENEAN FINALERDIETAN HASIKO DIRA

Bi kanporaketa haue-tatik zazpi bertsolari pasatu dira finalerdietara, saio bakoitzeko bi onenak eta puntuaziorik altuena lortu duten hurrengo hiruak. Joan den urteko sailkapena kontuan hartuz bertze hamar bertsolari zuzene-

an ariko dira finalerdi horietan. Martxoaren 18an, arratsaldeko 5etan Leitzako zineman Xabier Legarreta, Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Xabier Terreros ariko dira, kanporaketa gainditu duten bertze bi bertsolarirekin batera.

Hurrengo finalerdia martxoaren 23an egingen da, arratsaldeko

6etatik aitzinera Iruñeko Iruñezar Euskaltegian. Amets Arzallus, Bittor Elizagoien eta Iñigo Olaetxea, bertze bi lagunekin ariko dira.

Hirugarren finalerdi bat ere izanen da, martxoaren 25ean, arratsaldeko 4etatik aitzin Izpuran. Estitxu Arozena, Sustrai Kolina eta Juan Mari Lopez dira zuzenean ariko diren

bertsolariek, kanporaketako bertze hirurekin.

Finalerdiko saio hauetan honako lana egin beharko dute bertsolariek: Zortziko handian hiruna bertso ofizioka, zortziko ttikian hiruna bertso ofizioka, bi punturi erantzuna eman, hamarrekotikian hiruna bertso ofizioka eta kartzelan, hamarrekotik handian azkenaurreko puntua emanda eta gai bati hiru bertso kantatu beharko dituzte.

### FINAL NAGUSIA APIRILAREN 1EAN BERAKO EZTEGARA PILOTALEKUAN

Finalerdietatik zortzi bertsolari pasatuko dira, apirilaren 1ean, arratsaldeko 4,30etan Berako Eztegara pilotalekuan egingen den final handira. Finealean honako lan hau egin beharko dute: Zortziko handian hiruna bertso ofizioka, hamarrekotikian hiruna bertso ofizioka, hiru punturi erantzuna eman, Mainontzin hiruna bertso ofizioka eta kartzelan, gai bati hiru bertso.

**bortzirUDI** **BERA**

FEJTERELIAK, ENKULMENDAZOAK, PLASTIFIKAZIOAK, FAXA, FUMARLA, SKANNERIA, PAPERITUEGA, ARGAZKI MUNTALAK, DISENU GRAFIKOA, INBENTU A LANAK, SERBIZIOAK, PUBLIZITATIA

Ertegarara 26 behean Tel.- Faxa: 948 63 15 21

**SAROB**  
okindegia

SANDERS Pentsuak  
Eztegarara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**ERROTAZAR**

Eztegarara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

**ZELAIA Harategia**  
Agerra Auzoan

**Laudio pinturak**  
Barne eta kanpoaldea. Aurrekontua konpromiso gabe

Tel: 948631602-610627059

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA



**Petti eta Ruper Ordorika bakarlarien kontzertua Korrikaren bezperan**

Apirilaren 8ko goizaldean iraganen da herritik 2001eko Korrika, igande goizeko 6,30ak aldera hain xuxen. Euskararen aldeko lasterketa Lesakatik etorriko da, eta Ibardineko kaxkotik Baiona aldera abiatuko da. Bortzirietan barna guzira 30 kilometro inguru egingen ditu.

Bezperan, giroa berotzen joateko, Petti eta Ruperren kantaldia izanen da Berako Kultur Etxean. Berako Kultur Batzordeak Berako Udalaren laguntzarekin antolatu du, eta 1.200 pezeta balio du sarrerak.

**flash**

**Sagardotegira ateraldia**

Zirimolan kultur taldeak (Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxata, Sarako Gaztetxea eta Azkaingo Altxa Lilik osatzen dutena) martxoaren 24rako sagardotegira joateko autobusa antolatu du. Astigarragako Oiarbiden izanen da otordua, eta autobusa Gure Txokoatik aterako da arratsaldeko 7,30-etan. Errekalde ostatuan eman behar da izena, martxoaren 17a baino lehen.

**Solasaldia gurasoentzat**

Jesusen Bihotza ikastetxeak deituta Alberto Cascante pedagogoa ortziralean etorriko da heziketaren inguruko hitzaldia ematera. Hitzordua arratsaldeko 7etan izanen dute gurasoek, Gure Txokoako egoitzan.

**Nafarroako Bertsolari Txapelketa**

Asteburu honetan hasiko da aurtengo Txapelketa Elizondon, eta finala Beran egingen da apirilaren 1ean. Txapelketan parte hartuko duten hogeitabi bertsolarien artean beratar gazte bat ariko da, Julen Zelaieta. Eaba Berako finalean bere bertsuak aditzeko aukerarik izaten dugun.

**Ekitaldi saila antolatu dute Emakumearen Egunaren inguruan**

Ortzegunetik igandera eskulan erakusketa izanen da Kultur Etxean

**ASIER GOGORTZA**

Munduko hainbat herrialdeetan bezala Beran ere somatuko da Emakumearen Eguneko oihartzuna, Uxua Emakume Taldekoek hainbat ekitaldi prestatu baitituzte Martxoaren 8aren inguruan. Egun horretatik hasi eta igandea bitarte emakume beratarrek egindako eskulanen erakusketa izanen da Kultur Etxean. Astartean arratsaldeko 6etatik 8etara egonen da zabalik, eta asteburuetan goizeko 11etatik 1etara.

Bezperan, berriz, solasaldi bat emanen da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean: "Adinean goiti, baina gozo". Biharamonean, berriz, nahi duten emakume guziek elkarrekin afaltzeko modua izanen dute Zubiondo jatetxean. Afariak 2.500 pezeta ba-



Berako emakumeen eskulanak ikusgai izanen dira Kultur Etxean.

lio du, eta puntatzeko 948 625 472 telefonora deitu behar da.

Emakumearen Eguneko ekitaldiekin akautzeko, antzerkia izanen da igandean arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean: "Ni ez naiz hori" obra antzeztuko dute.

**Baserritarrekin bilkura**

Joan den astean baserritarrak alkatearekin bildu ziren Herriko Etxean, aziendengatik hartzen ahal dituzten dirulaguntzen inguruan solasteko. Izan ere, sos hoiek eskuratzeko es-

plotazioak inguramenari kalterik egiten ez diola segurtatu beharko du Udalak. Horretarako, baserritarrek inguramen-teknikoekin harremanetan jarri eta espedienteak ireki behar dute Udalak bere sinadura eman aitzinetik.

© 948 631462  
Altzate I • BERA

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

**E E K L E**  
**st tu**

Tfnoa: 948630259 - BERA

**OKANE**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**LESACA**

*Personaiak*

**Asegarcetik  
Aspera pasatu da  
Taberna pilotaria**

Asegarcetik kontratua berrikotzeko ez diola jakinarazi dio Joxe Jabier Taberna herriko pilotari profesionalari. Honenbertez, otsailaren 11n Tafallako Ereta pilotalekuan irabazitako partida izan zen Joxe Jabierrek Asegarcerekin jokatu zuen azkena. «Bizi-legea hori da eta enpresa guzietan gertatzen dira honelakoak» zioen 31 urteko atzelariak. Halere, enpresak erabakiaren berri lehenxeago eman behar ziola uste du. 1993ko maiatzaren 28an debutatu zuen Seguran eta geroztik, momentu gozo eta gaziak bizitu ditu pilotan. «1999ko udaberriari ongi nengoen, estelar batzuk jokatu nituen». Errastiren orde ez jokatu zuen Unanuerekin batera eskuz binakako txapelketan. Azken urte terdian, ordea, lesioek ez diote berea erakusten utzi. Dena den, Aspek bi urtez profesionalen segitzeko aukera eman dio eta dagoeneko jokatu du enpresa berriarekin.



**Joxe Jabier TABERNA**

# 560 kiloko Euskal Herriko sokatira txapelketako azken saioa herrian

Larunbat honetan jokatuko dira finala erabakitzeko tiraldiak

**AITOR AROTZENA**

Joan den urtean bezalaxe, Euskal Herriko 560 kiloko sokatira txapelketaren azken saioa Lesakan egingen da. Larunbat honetan, martxoak 10, arratsaldeko 5etatik aitzinera izanen da hitzordua udal pilotalekuan eta Beti Gazte taldearekin batera, Areso, Bizkaiako Torrekolanda, Altamira Gaztea, Abadiño eta Leioako Euskal Kirol Zaleak eta Gipuzkoako Auzolan-Igeldo lehiatuko dira pisu arinean.

Joan den urtean, etxean egindako azken saioan jantzi zuen txapela Beti Gazte. Aurten, berriz, hiru saioen ondotik finala jokatuko da apirilaren 7an Usurbilen. Kategoria honetan zazpi talde ari dira eta finalerako sei sailkatzen direnez, lesakarrak ez dute Usurbilen aritzeko arazorik izanen. 600 eta 640 kiloko txapelketak ere gisa berean jokatuko dira eta 680koa, berriz, saio bakarrean egingen da.

Bertzalde, gizonetakoak ez ezik, neskek ere tiran ikusteko modua izanen da, 520 kiloko hirugarren saioa izanen baitute. Sakana (Nafarroa), Leioako Euskal Kirol Zaleak (Bizkaia), Badaiotz (Araba) eta



**Karroza ikusgarriak aurten ere**

Igandeko zakozaharren ateraldiaren ondotik, astelehen eguerdiko mozorro eta karrozak izan ziren protagonista iañautetan. Batzuek lan ederra egin behar izan zuten beraien organo apaintzeko, arrantzaletasun horren lekuko. Adin guzietako jendeak atera zituen mozorroak, baita ibiltzen juxtu-juxtuan baina errepideko lanean ederki zekien mutiko horrek ere. TTIPI-TTAPA TB



Auzolan (Gipuzkoa) ariko dira.

**Beti Gazteren batzarra**

9.680.000 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten Beti Gazte elkarteak, otsailaren 23an onartutako aurrekontuaren arabera. 800 bazkideetik goiti duen elkarteko dozena bat bazkide bertzerik ez ziren agertu batzarrera, nahiz eta bilera ondotik luntxa es-

kaini. Egoitzan moldaketa lanak egin, leihorak aldatu eta kalefakzioa jartzeko asmoa azaldu zen. Joan den urtea, 1.274.817 pezetako superabitarekin akautu zuen.

Zuzendaritza batzordean ez da aldaketarik izan, baina Salvador Iantzi lehendakariak azkeneko urtea duela senagurtatu zuen. Idazkari eta diruzain lanak betetzeko jendea behar dela ere aipatu zen.

**flash**

**Zortzi hautagai bi albinte lanpostuendako**

Bi udal albinte lanpostuak betetzeko zortzi hautagai aurkeztu dira, horietatik bi bakarrik lesakarrak: Rafael Maritxalar Elgorriaga eta Jose Javier Taberna Agesta. Beraiekin batera, Carlos Artégain, Luis Mari Egaña, Miguel Angel Larra, Santiago Gonzalez, Isabel Victoria Mesa eta Mikel Gozton Ortiz de Urbina onartu ditu behin behineko Udalak.

**Amnistiaren aldeko Hilabetea**

Larunbat honetan, martxoak 10, goizeko 11etatik arratsaldeko 4etara kontzentrazioa egingen da plazan. Herriko talde ezberdinek ordu erdiko txandak egingen dituzte. Larunbatean, martxoak 17, Daroca espetxera martxa aterako da Lesakatik goizeko 5etan. Antigua eta Larraungo jendea bildu ondotik Darocara ailegatuko dira. Zaragoza hiriburuaren ere prentsaurrekoa eskainiko da.

**XATURETXEA**  
JATEIXEA  
Tfnua: 948637027 LESACA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnua: 948 637 127  
**LESACA**

**ANNA**  
Janaridenda  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESACA

**Lurrindenda**  
Marian  
Lendiberrri  
Estetika  
Behoko Plaza 3 © 948637791 • LESACA

ETXALAR

# Inoiz baino arrakastatsuagoak izan dira aurtengo iñauteak

Martxoaren 11n Altxata kultur elkarteak batzar orokorra egingen du

JOSEBA ETA NEREA

Iñauteak hurrek hasi zituzten ortzegunean. Goizeko eskea eta gero, hainbat antzerki emanaldi eskaini zituzten herrian. Honen aitzakian jende aunitz ateri zen eta koadrila handia bildu zen plazan egin zen berenduan ere. Aurtengoan gainera, hurrek Arantzako eskolako ikasleen bisita izan zuten. Ikasle eta irakasleak kontent ageri ziren lortutako emaitzarekin.

Astelehenean eta asteartean, berriz, gazteen eta ez hain gazteen txanda ailegatu zen. Astelehenean, gosalduta ondota, bi taldetan banatu ziren gazteak baserrietara joateko. Beheko auzoetara joandakoek ibilbidea oinez egin bazuten ere, goiti joan zirenek Eustakio eta Frantzisko Mari Iparragirren laguntza izan zuten baserri-buelta traktorez egiteko. 50 bat lagunek afari legearekin akautu zuten egun berexi hori. Honela, iñautetako egun nagusiari



Urtetik urtera karroza eta mozorro ikusgarriak agertzen dira plazara. TTIPI-TTAPA TB

bide eman zitzaion asteartean. Aurten inoiz baino karroza gehiagoz gozatzeko aukera izan genuen: piratak, bonberoak, equipo aaa.com... Honetaz gain, bertze hainbat mozorro ikusi ziren. Gainera, Altxata

elkarteak «Matxin» aktorearen ikuskizuna antolatu zuen aurten, berrikuntza bezala.

## Altxataren batzar orokorra

Igande honetan, martxoak 11, Altxata kul-

tur elkarteak urteko batzara egingen du. Urtero bezala, eguerdiko 12etan, juntako kideak mahainguruan bilduko dira bertaratutako sozioekin, eskola zaharretan. Bertzeak bertze, iazko kontuak onartu, aurtengoak aurkeztu eta junta berrituko da (lehendakaria barne).

## Etxalartar aunitz euskararen alde

Oinarriak eta Nafarroako alkateek deituriko herri-agerraldian etxalartar ugari bildu zen. Otsailaren 24an Iruñera joateko Euskara Batzordeak, Guraso Elkartearen 70 bat pertsona biltzea lortu zuen. Miguel Sanz presidentearen euskararen aurkako kanpainaren kontra daudela erakutsiz. Autobus bat nahikoa ez zenez, gazte batzuk Igantziko autobusean joateko aukera izan zuten. Manifestazioak besta giroa ere sortu nahi zuenez, herriko trikitilarien laguntza egin zuten Iruñako Golem zinemetatik Gaztelu Plaza arteko ibilbidea.

## flash

### Talde nagusiaren dantza ikastaroa

Ttikienak dantza ikastaroetan urtarrilean hasi baziren ere, otsailaren 10ean nagusiagoen txanda ailegatu zen. Iaz bezala, Igantziko Amadeo Arretxearen gidaritzapean ariko dira 20 gazte. Larunbatero, goizeko 11tan biltzen dira Landagain eskolan, herriko bestetan eskainiko dituzten dantzak ikastera.

### Kinto bazkariak iñautetako igandean

Etxalarren ohitura denez, iñaute-igandean kinta ezberdinetako lagunak bildu ziren. Herrian nahiz kanpoan bizi diren kinta kideak Antonion, Harizpen eta Bentan bildu ziren, otordu eder baten inguruan.

### Sukaldaritza ikastaroa

Otsailaren 9an afari batekin akautu zuten sukaldaritza ikastaroa. Urritik otsailera 20 lagun bildu dira ortzegun arratsaldetan, Iñaki Pikabea Berako sukaldariaren agindupean.

Legaitrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak  
espiralean ere  
egiten dira

## HARITZPE

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

948635235  
948635038

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

948635290 ETXALAR

**«USOA»**

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena

Tfnoa: 948635214

**ETXALAR**

**IGANTZI**

# Otsailaren 24an izan zuten Baratzondon urteko bilkura

Berrizaun inguruan agertutako behiaren jabea ez da azaltzen

**OSKAR TXOPERENA**

Batzarra izan zuten otsailaren 24ean Baratzondo Elkartean. Urteko kontu eta ekintzen berri eman zuten Juntak bilkuraren hasieran eta ondotik Juntako hiru kide berri aukeratu zituzten. Lehendakari lane-tarako Miguel Hitak bildu zuen boto gehien; diruzaina Amalia Sein izanen da hurrengo bi urtetan eta Hipolito Iparagirrek Juntaren bokala izaten segitzea onartu zuen. Ramon Iri-goien, Esperanza Eltzaurdia eta Simeon Iguzkiagirrekin batera osatuko dute Junta.

**Agertutako behia**

Berri hauek idazte-rakoan oraindik Iribarrereogorda baserrian segitzen zuten inguruan agertutako behi beltzak. Udalak bandoak herri guzian barna paratu zi-

tuen, baina, ez da momentuz bere jabearen berririk. Ez da hauxe maiz gertatzen den afera, eta gaiarekin dagoen sensibilitatea kontutan hartuta, zenbait bro-metarako aitzakia ere eman du.

Bertzalde, etxeetan hiltzen diren azindak biltzeko telefono zenbakia zabaldu du Nafarroako Gobernuak. Behar-rean bazaudete, hauxe da: 948690067. Hildako azindak zuloetara botatzeko ohitura atzendu beharko dugu, momentuz behinipein.

**Iruñeko manifestazioa**

Otsailaren 24ean

**Iñauteak ederki joan ziren**

Aurtengo iñauteak ere joan zaizkigu, eguraldiak lagunduta giro politarekin gainera. Mozorroek euren ibilbide eta egitarauari eutsi diete, azken urte hauetako ohiturari jarraituz. Egia errateko aldaketa tiki bat izan da aurtengoa, Sarrola auzoko eskia ortziralean ilunabarrean egin biltzuten, larunbatean egin beharrean. Larunbat ilunabarrean, berriz, betiko kodrillak prestatutako "Izar Bila" antzerkia pilotalekuan ikusteko aukera izan genuen. Akats tekniko tiki batzuk izan biltzuten ere, txalagarria da gazte talde honek iñauteak alaitzeko egiten duen lana. Argazkian ikusten ahal den bezala, mozorro politak ere izan ziren ondotik, garai bateko arropaz jantzitako taldea eta Donostiako tanborrada, adibide gisera. Haurrek ere euren hiru egunak ederki aprobetxatu zituzten, eta zerbait azpimarratzekotan, eskolan prestatutako antzerkia egin behar, dudarik gabe.

Oskar Txoperena



Iruñean euskararen alde egindako manifestazioa 45 lagunetik goiti joan ziren Igantzitik,


34 autobusez eta gainerakoak autoetan joan. Igantziko Udalbatzaren ordezkari-tza ofi-

zuala bertan izanen zela aginduta bazegoen ere, ez zen horrelakorik izan.

**CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRAZKUN S.L.**  
 Makinaria eraikuntza  
 Moldaketak eta despiezeak  
 Mantenimendu mekanikoa  
 Torno, fresadorak, errektifikadorak  
 Igantziko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

**ATM S.A.**  
  
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.  
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera  
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.  
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)  
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)  
 Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**MARTIKO**  
*Gure baserrietako produktua*  
 © 948 625016 • Fax 948 625036  
 Alkaiaga Industrialdea • BERA

**KOXKILA OSTATUA**  
  
 Zarandia, 4 - LESAKA

**ARANTZA**

# Etxalarko igeriketa ikastaroan ari dira Lehen Hezkuntzako bederatzi ikasle

Udalak ikasle bakoitzeko bi mila pezeta ordaintzen du

ELIXABET ETA GARBIÑE

Ikasturteko bigarren hiruhilabeteen Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko bederatzi ikasle Etxalarko Bentatako igerileku estalian igeri ikastaroan ari dira. Ikastaroak 13.000 pezeta balio du ikasle bakoitzeko (monitorea, garraioa...). Eskola Kontseiluaren eskaerari kasu eginez, Udalak laguntza gisara 18.000 pezeta ematea erabaki du, ikasle bakoitzeko 2.000 pezeta.

Bertzalde, Eskola Kontseiluak ikastetxean obra batzuk egitearen beharra ikusi du. Honela, atek konponetzea, gimnasioko tari-maren moldatzea eedo patioko paretak eta fatxadak margotzeko laguntza eskatu diote Udalari. Udalak, ahal duen neurrian obrak eta



Martxoan sartzeko puntuan ginela ikusi genuen lehen aldiz elurra.

hobekuntzak egiten saiaturiko dela jakinarazi dio Eskola Kontseiluari.

### Elurra otsailaren azken asteburuan

Gezurra badirudi ere, dagoeneko ia negua pasatu zaigu eta oraintxe xuritu zaigu herria.

Otsaileko azken aste bukaeran, igande goizean elurra hasi zuen. Gutti iraun bazuen ere, teiltuak xuritzeko adina egin zuen.

### AEKrekin elkartasuna

Azken boladan Auzitegi Nazionaleko Balta-

sar Garzon epaileak AEKren aurka hartutako neurriak direla eta, azken plenoan ahobatez erabaki zen AEK erakundeari elkartasuna adieraztea. EHko zinegotzien botuekin onartu zen mozioa, ordurako PNV-EAko zinegotziek batzar-areto-

tik alde eginak baitziren.


### Bardeetan erreferenduma egitearen alde

«Bardeak tiro eremurik gabe» plataformak aurkeztutako mozioa ahobatez onartu zuen Udalak. Mozio honetan, tiro-eremuaren etorkizunari buruzko erreferenduma egitea eskatzen zen. Erabelean, larunbat honetan egin den mobilizazio deialdira deitu zen.

### Euskararen aldeko manifestazioa

Miguel Sanzen gobernuak prestatutako euskararen dekretuaren kontra agertzeko aranztar dexente joan zen otsailaren 24an Iruñean egin zen manifestaziora. Herriko eta Igantziko jendearen artean autobusa osatu zen.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



© 948630155  
**BERA**

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)



© 948631076 • BERA



**LESKA**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**Lesaka-Donoztebe**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**KAXULAK**

- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA  
© 948 63 75 58

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763

**MALEERREKA**

# Larunbat arratsetan autobusak jarriko dituzte Bordatxoko harat-honatak egiteko

Azken gertakari eta istiluak salatu egin ditu nagusiak

TTIPI-TTAPA

Asteburu honek berrikuntza kozkorra ekarri dio Bordatxo dantzalekuaren ibilbideari, izan ere joan-etorriko autobusak antolatu dira. Denetara borts autobus antolatu dira eta, arrakastaren arabera, ondoko asteetan ere mantenduko litzateke zerbitzu hau. Autobus bat gaueko 11etan abiatzen da Irunetik eta Bera eta Lesakako plazan eta herrietako bidegurutzetan geldialdiak egiten ditu. Ordu berean, Iruñetik ere autobusa abiatzen da. Gaueko 11,15etan Leitzatik abiatzen da autobusa eta Elizondotik, berriz, bi izanen dira, bat gaueko 11,30etan eta bertzea 12,30etan. Guziek geldialdiak egiten dituzte herrietako bidegurutzetan. Etxera itzultzeko,



**Bordatxora joan-etorriko autobusak antolatzen hasi dira.**

Artxibokoa

goizaldeko 5,30etan aterako dira autobusak Bordatxoren ataritik eta

irteera puntuetara eramanez du jendea.

Dena den, bertzela-

ko kontu ilunagoengatik ere ibili da Bordatxoren izena ahoz aho. Otsailaren 17an gertakari larriak izan ziren bertan. Jose Beola nagusiak Labaiengo gazte batzuen kontrako salaketa egin du. Gau horretan, dantzaleku barronean komunak xehetu ondotik kanporatuak izan ziren gazte horiek eta handik denbora batera aizkora, sega eta igitaiekin etorri ziren. Bordatxoko atek itxi egin ziren, baina kristalak xehetu egin zituzten gazte hauek. Salaketaren arabera, 185.000 pezetako gas-tuak sortu zituzten.

Jose Beolak adierazi duenez, gazte hauek ezagunak dira eta lehendik hainbat iskanbila sortu dituzte eta Urte-zahar gauean ere dantzalekutik kanporatu egin zituzten.

**flash**

**Iturengo Ibitza taldeak** zozketatutako saskiak badu jabea azkenik. Lasaga auzoko Irune Ariztegik eraman du. Urtarrileko zozketan ez zen zerbaki saritua agertu eta inñauteetako kontuen egunean zozketatu zen berriz ere.

**Gay-Lesbianen II. Topagunea** Baztan-Bidasoako gay eta lesbianen bigarren topagunea larunbat honetan, martxoak 10, arratsaldeko 4etatik aitzinera egingen da Doneztebeko Kaxerna ostatuan. Lehendabiziko deialdiak erantzun ona jaso zuen eta elkar ezagutzeko baliagarria izan omen zen.

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**

**Bazkari, afari eta gosariak**

**ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91**

Ibarrola Mertzeria  
Haurrendakako arropa  
0-14 urte  
Parralua kalea 6 - Donostia  
948490433

*Negurako modelo berriak*

**BEINTZAko**  
**OSTATUA**

© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN



Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**APARAN, S. A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

- Igeltseritza
  - Pintura
  - Iturgintza
  - Zurgintza
  - Elektrizitatea
  - Brikolaia...
- BEHAR DITUZTEN **LAN TXIKI** HORIENTZAT  
**ERREFORMAK** • **MUNTAIAK** • **KONPONKETAK**

**OFIZIALE GUZTIAK**

zure zerbitzura:



**SERVI-LAN**<sup>en</sup>

**Alicia T. Erlanz**

**Elizagibela, 5 - behea • DONEZTEBE**  
**Tel.: 948 456193 - Faxa: 948 450 760**

**KULTURA**

# Korrika badator!

Aitzinetik kultur ekitaldi prestatuko dira herriz herri

**TTIPI-TTAPA**

Martxoaren 29an Gasteizen hasi eta apirilaren 8an Baionan bukatuko da aurtengo Korrika, «Mundu bat euskarara bildu» lelopean. Eskualdetik apirilaren 6ko gauean (Goizueta eta Leitza) eta 8ko goizaldean (Baztan, Bertizana, Malerreka, Bortziriak eta Saraldea) pasatuko da.

Goizuetara apirilaren 6ko gaueko 10ak aldera ailegatuko da Hernani aldetik. Leitza-ra gauerdia inguruan pasatuko da eta hortik Lekunberri aldera joko du. Apirilaren 7ko gauerdia baino lehenxeago sartuko da berriz ere eskualdean Belatetik barna. Elizondon apirilaren 8ko goizeko 1,30ak aldera izanen da, Donezteben 3,30etan, Lesakan 5,45etan eta Beran 6,25etan. Euskararen aldeko gaupasa egiteko aitzaki ederra, beraz.

Baztan, Malerreka eta Bortzirietatik goizean goiz pasatu ondotik, Ibardinetik Baiona aldera segituko du, betiere hamabiak aldera

harat ailegatzeko. Hau guzia antolatzeke Korrika batzordeak antolatu dira herriz herri. Bortzirietan, adibidez, Arantza, Etxalar eta Igantzin Euskara batzordeen ardura izanen da hau guztia antolatzea eta Bera eta Lesakako kasuan, batzorde zabalagoak sortu dira.

Baztanen Suinki eskualtegia arduratu da Korrika antolatzeaz. Leitzaaldean eta Malerrekan ere batzordeak sortu dira.

**KORRIKA KULTURALA HERRIZ HERRI**

Bortzirietan zenbait kultur ekitaldi egingen dira Korrikaren inguruan. Beran, errate baterako, martxoaren 3an bertso trama izan da Kultur Etxean eta apirilaren 7an, hau da, bezperan, Ruper Ordorika eta Pettiren kantaldia izanen da. Lesakan martxoan Hika taldearen antzerkia eta Txan Magoaren emanaldia ikusteko parara izanen da.

Baztanen, ekitaldi nagusia igande honetan, martxoak 11, egingen da. Atsaldeko 6,30etatik aitzinera, «Bar Puerto»



Korrikak adin guzietako jendea bilduko du aurren ere euskararen alde.

kostaldeko bizitzaren testigantza jasotzen duen ikuskizuna eskainiko da Elizondoko elizaretoan. Korrika Kulturalerako bereziki prestatutako ikuskizun honetan literatur testuak, zuzeneko musika eta bideoa uztartzen dira. Mikel Urdangarin kantaria, Kirmen Uribe idazlea eta Josu Eizagirre bideogilea aritu dira lan honetan.

Martxoaren 31n bertso-afaria egiteko intentzioa dute Baztanen, baina oraindik ez da lekua eta ordua zehaztu.

Leitzan, martxoaren 20an, Koldo Zuazoren «Euskararen sendaberrak» liburua aurkeztuko da liburutegian, arratsaldeko 7,30etan. Martxoaren 23an, be-

rriz, Lesakako Mairu antzerki taldearen emanaldia izanen da. Edozein kasutan, hurrengo asteotan ekitaldi guztiak finkatuko dira.

**KORRIKA TIKIAK**

Azken urteotan egin ohi denez, herri guztietan Korrika tikiak izanen dira. Lesaka, Etxalar eta Berako kasuetan apirilaren 6an, ortziralean, izanen dira eta Arantza eta Igantzin berriz, apirilaren 7an, larunbata. Bortzirietako ikastetxeak burubelarri arituko dira hauen antolaketan. Leitza, Areso eta Goizuetako eskolek ere egingen dute korrika saiorik apirilaren 6an.

Baztanen borts korrika tiki egingen dira apirilaren 2tik 6ra.

Elizondon, Baztan Ikastolak eta San Francisco Javier eskolak antolatu dute. Basaburua, Baztangoiza, Irurita eta Oronoz-Arraioz-Gartzaingo eskolek Korrika tiki bana antolatu dute.

**MATERIALA KATALOGO BIDEZ**

Beti bezala, Korrikaren inguruan hainbortze material dago salgai (kamisetak, polarrak, metxeroak...). Hala ere, aurren horiek eskuratzeko modua aldatu da. Izan ere, materiala katalogo batean bildu dute eta, beraz, katalogo bidez eskatuko da. Katalogoak ohiko tokitan daude ikusgai eta nahi diren produktuak ikusi ondotik eskaera egin behar da.



**MENDAUR MOTOR**

OPEL-SUZUKI banatzailea

**Orain txapa eta pintura zerbitzu berriak**

**Martxorako aukerak**  
Suzuki Ignis eta Jimny berriak

*Etorri eta ikusi*



Leitzako errepeidea • ☎ 948 450333 • **DONEZTEBE**



**BERTIZARANA**

# Legasako pilotalekua erabiltzeko araudia onartu da

Bertzalde, artisau denda hartzeko lehiaketa deia egin du Bertizko Partzuergoak



TTIPI-TTAPA

Legasako kontzejjuak Mendibegi pilotaleku estaliaren erabilera arautuko duen ordenantza behin behinekoz onartu du. Bertzeak bertze, kiroldegi bezala erabiltzen ahal dela aipatzen da, baina ez dira onartuko motorea duten ibilgailuekin prestatzen ahal diren ekitaldiak. Herri kirol saioak egiteko, berriz, baimena eskatu beharko da.

Ordenantzak ordutegiak eta prezioak ere zehazten ditu.

## Artisau denda hartzeko lehiaketa eginen du Partzuergoak

Bertizko Turismo Bulegoaren ondoan dagoen artisau dendaren adjudikazioa lehiaketara ateratu du Bertizko Partzuergoak. Esleipena urte bat eta bederatzita hilebaterako izanen da, 2001eko apirilaren 1etik 2002ko abenduaren 31 arte eta bertze urte bat edo birako luzatzen ahal da. Eskeintzak (aktibitateenak nahiz ekonomikoak) Bertizko turismo Partzuergoko bulegoan aurkeztu behar dira martxoaren 15a, ortzegina, eguerdiko bi orduak baino lehen.

Baldintzak eskualdeko udaletan eta Bertizko Partzuergoan bertan aurki daitezke. Edozein zalantza argitzeko edo informazio gehiago jasotzeko, Bertizko Partzuergora deitzen ahal da (948 592323).



Ez m n  
u lt  
h r k,  
ur l Kutx k  
2 1  
. .C.  
r st tz n  
l un uk  
zu.



ur l Kutx . .C. 2 1 . k r k l ur n  
Ez m n u l t h r k, ur l Kutx k 2 1 . .C. r st tz n l un uk zu.



**GOIZUETA**



Dionisio Txoperena eta artaldea, publizitate kanpaina handiaren protagonista.

# Goizuetarrak izar Ameriketara ere

Dionisio Txoperena da Iparramerikako telefono konpainia handienaren publizitate kanpainako protagonista

**ESTEBAN AROTZENA**

Hemezortzi urterekin Ameriketara artzain joan eta 46rekin publizitate izar bihurtzea ipuinetan edo Estatu Batuetan bakarrik gertatu liteke. Horixe da Dionisio Txoperena gaur egun, izar bat, AT&T telefono konpainia egiten ari den publizitate kanpaina

erraldiaren protagonista baita gure herriko mutil hau.

Estatu Batuak, Kanada eta Mexikoko telebista kate, egunkari eta aldizkari garrantzitsuetan agertzen da Dionisio, baita hiri guzietako publizitate paneletan ere. Bere anaia Jabier Marik ere parte hartu du kanpaina honetako irabazkeri batzuetan.

Txoperenak esan zingenez, suerteari zor dio gaur egun bizitzen ari den egoera hau, taberna batean zegoela hurbildu omen zitzaizkion publizistak frogatzeko proposamenarekin. Ordurako, ehundaka omen ziren probatuak, baina azkenean goizuetarra hautatu zuten. Bi urteko kontratua sinatu zuen eta oraindik

erdia falta zaio betetzeko; hurrengo hilabeteetan beste hainbat irabazkeri grabatuko ditu Hollywooden, eta AT&T konpainiaren akzioak gero eta balore handiagoa dute.

Ez dago gehiago eskatzerik. Amets amerikarrean sinistu beharrean gaude, galdetu bestela Dionisio Txoperenari.

**Herrilurren trukaketa**

Nafarroako Gobernuak 9.840 metro koadroko herrilurra 22.530 metroko beste batekin trukatzeko baimena eman dio Udalari. Azken lur hau Izaskun Iriarterena da eta Urumean kokatutako presa bati, ubide bati eta makina-gela bati dagokio. Trukaketa honekin Udalak bereganatuko ditu jauzi hidroelektriko batek hartzen zituen lurak.

Beste herrilur eskualdaketa baten bidez, 8.203 metro koadroko lurra, Jose Lorenzo Apeztearen beste 11.448 metroarekin aldatuko dira. Trukaketa honekin, zentral zahar batera ura zeramaten bi ubidek hartzen zituzten lurak berreskuratuko ditu.

**Iskibi kanpina**

Iskibi kanpineko zerbitzu guziaz alokatzeko asmotan dira bere jabeak aurtengo denboraldirako, hau da, ekainaren 15etik irailaren 15a bitarte. Informazio zabalagoa jaso nahi duenak 639165436 telefonora deitu beharko du.

**ARESO**

# Internet eta informatika ikastaroak emanen dira

Eskolako gela bat erabiliko du Udalak

**JUANA MARI SAIZAR**

Udalak eskolako gela bat erabili nahi du Internet eta informatika ikastaroak egiteko. Mahaia eta aulkiak bertan daude eta liburutegia ere martxan jarria dago. Ikastaroan parte

hartu nahi duten guztiek idazkaritzan eman behar dute izena.

**Hirurteko Planari errekurtsioa jarri zaio**

Nafarroako Gobernuaren Hirurteko Azpi-egitura Planaren barne-

an inolako dirurik hartu ez denez, Udalak errekurtsioa jarriko du. Filipborda eta Iruñegiko pistak, baserrietako argiak eta herrian ere argi batzuk jartzeko lanak kontuan hartzea eskatuko zaio oraingoa Nafarroako Gobernuari.



**Elurra teilatuan...**

Lehenbiziko elurrak ailegatu dira eta txuri-txuri utzi dute herria. Gereñonea baserrian 32 zentimetroko altuera hartu zuen elurrak.

# Droga menpekotasunaren prebentziorako gazte topaguneak antolatu dira

Antzezlan eta mahaingurua antolatu dira martxoaren 16 eta 17an

JOSEBA AZPIROZ

Leitza, Altsasu eta Irurtzango Droga menpekotasunaren Prebentzio Programek eta Sakana-ko Askagintzak gazte topagune batzuk antolatu ditu, «drogen gaia gazteek zuen kabuz, presio, hipokresi eta jui-ziorik egin gabe hitz egin eta landu dezazuen, hau da, fenomeno honek gazteengan duen eraginaz hausnartzeko eta alternatibak zehazteko».

Leitza bi ekintza burutuko dira. Batetik, martxoaren 16an, ostirala, arratsaldeko 8,30-etan, antzezlan bat burutuko da zinemaren eta bestetik, martxoaren 17an, larunbata, arratsaldeko 4etatik aurrera, gazte eztabaida, hausnarketa eta proposamenak egiteko aukeraz izanen da, Aurrera elkartearen egoitzan.

## Saharako haurrak hartzeko deia

Dakizuenez, aurreko urteko udan Saharako hainbat haur etorri ziren gure artera, beraien



Uda honetan Saharako umeak etxean izan nahi dutenek martxoaren 15a baino lehen eman behar dute izena.

Artxibokoa

herrian jaso ezin ditza-keten hainbat zerbitzu (osasuna,...) jasotzeko posibilitatea izateko eta Saharako herriaren egoera zein den ezagutzeko eta elkartasuna adierazteko antolatutako proiektuari esker. Esperientzi aberasgarri honek aurten ere jarraitzea nahi dute. Horretarako, aurtengo udan Saharako haur bat etxean hartu nahi baduzu, martxoaren 15a baino lehen, Gaztañaga

tabernan, Farmazian edo Gizarte Zerbitzuan izena eman dezakezu.

## Leitzar asko Euskara dekretuaren aurkako manifestazioan

Nafarroako Gobernuak onartutako Euskara Arautuko duen Dekretua eta hau garatzeko Ekintza Planaren aurka Iruñean egindako manifestazioan Leitza asko izan zen. Bi autobusez joandakoaz gain,

ibilgailu partikularrez jende asko joan zen. Ia hemendik aurrera antolatuko diren ekintzetan parte-hartzea mantentzen dugun.

## Olio begetalaren birtziklapena

Udalak hitzarmen bat sinatuko du Ecogras enpresarekin, etxeetan erabiltzen den olio begetala biltzeko. Olio hau hondar toxikoa ez bada ere, harriko botatzeak eragin txarrak ditu:

sagu eta arratoiek elikatzen dira, itsasoan olio putzuak sortzen dira, ur hondakinen garbiketa zailago eta garestiago bilakatzen da eta gainera probetxagarria izan daitekeen olio hori beste ezerretan erabili gabe galtzen da. Bilketa hilean behin eginen da, ostiralaz, azoka garaian. Etxeko olio zikina edozein ontzitan eraman eta Ecograsekoak jasoko dute. Zerbitzua dohainik izanen da herritarrentzat, Udalak ordainduko baititu enpresak bilketa bakoitzeko kobratzen dituen 50.000 pezetak. Ia pixkanaka etxeetan erabilitako olioaren %100 jasotzea lortzen den. Kontutan izan 1000 biztanlek isurtzen duten olioia 600 litrotan estimatzen dela.

## Nafarroako Bertsolari txapelketaren finalerdia

Martxoaren 18an, igandea, arratsaldeko 5etan Nafarroako Bertsolari txapelketako finalerdia eginen da zinemaren.



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km  
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

## MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

<p><b>IKUSMENAREN BERRESKURATZEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Miopia</li> <li>• Bista alfertua</li> <li>• Estrabismoa</li> <li>• Begi lausoak-kataratak</li> </ul>	<p><b>GIHARRE ARAZOK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bixkortzea</li> <li>• Artritis, erreuma</li> <li>• Artrosia, Lunbalgia</li> <li>• Bihurdurak, etab...</li> </ul>
--	--

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**San Marcial, 7-4 IRUN**

**BAZTAN**

# Irurritako Dorrea zentru zibiko egiteko erosiko du Udalak

Erabakiaren aurka bozkatu zuen EHk, «bertze premiak badirelako»

**TTIPI-TTAPA**

Irurritako Dorretxea erosteko komenio urbanistikoa onartu du Balleko Udalak, EA eta UPNko zinegotzien aldeko bozekin eta EHren aurkakoarekin.

EHko zinegotzien ustez, «premia handikoa da zentru zibikoa egitea Iruritan, ez ordea Dorretxea erostea. Etxea garrantzi historiko handikoa da, doike, baina badira bertze modu batzuk ondare horiek mantentzeko. Monumento guztiak erosten hasten baldin bagara, bertze obrak egiteko dirurik gabe geldituko gara». Ildo honetatik, zera zioen EHk: «Nafarroako Gobernuak eta bertze erakundeek ondare historikoa mantentzeaz solasten dute, baina ekintzak behar dira eta Dorretxea erosten saiatu beharko lirateke».

**EH: «BERTZELAKO LEHENTASUNAK»**

Aurtengo eta heldu diren urteetako udal aurrekontuetan bertze le-

hentasun batzuk ikusten zituen EHk: «Artearetoa, aparkalekua, Gartzaingo bilera-aretoa, herriko etxearen obra... Gainera, ez da etxea erostea bakarrik, gero moldatu egin beharko da. 20 milioietaz gain, heldu den urtean bertze 20-30 beharko dira». Garapen sozioekonomikorako plana bultzatzea eskatu zuten EHko zinegotziek.

**PATXIKU OIARTZABAL: «AUKERAK APROBETXATZEN EZ BADIRA IHES EGITEN DUTE»**

Alkatearen ustez, al-diz, moldaketa lanen zati handi bat Principe de Viana erakudearen gain joanen litzateke. Patxiku Oiartzabalek zioenez, «ballearen ondareaberrereskurtzeko aukera pentsaezina izan dugu. Aukera hauek gutitan izaten dira eta biltzen ez badituzu, pasatu egiten dira. Baztandarren ondare handia gordeko dugu eta Nafarroako Gobernuak honelako etxeei ematen dizkien dirulaguntzak aprobe-



**Baztan ikastolakoak, ekitaldiz ekitaldi**

Baztan Ikastolak ikasturteko azken hiruhilabeteari hasiera ona eman nahian, ekintza desberdinak antolatu ditu. Lehen astean, seigarren mailako 24 haurrek eski-kanpainan parte hartu zuten Otsagin, arront ongi pastu zutelarik (beheitian, ezker). Hirugarren astean Xorroxin Irrati ibiltariaren bisita izan zuten eta aste osoan ume guztiek, aitzinetik eurek prestatutako irrati saioetan urduri eta gustora parte hartu zuten (beheitian, eskuin). Aste hortako igandean, Santa Ageda bezpera zenez, haur, guraso eta irakasleak Elizondoko karriketan ibili ziren koplakantari (goitian). Otsailaren 24an, Oteiza Museoa bisitatu zuten eta Orakunde eta Iñautetan ere parte hartu zuten. Zuhaitzaren Egunean hainbat zuhaitz landatu zituzten

txatuko ditugu». Alkateak erran zuenez, «Iruritari eta balleari zentru zibikoa egiteko lekua ematen zaio, bertzenaz ere erosi egin beharko zena, baina baita harizti bat eta bertze gauza batzuk. Honelako etxeen balioa ikusteko adibiderik garbiena Amaiurko Borda jauregian dugu, berriki 160 milioitan jarri baitute enkantean».

**Ornozko haztegiaren markatutako 9.876 izokin askatu dituzte**

Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak denboraldi honetan Ornozko arrain haztegiaren markatutako 9.876 izokin askatu zituen martxoaren 1ean Endarlatsan. Ingurumen zaindarien, Berako Ehizi eta Arrantza Elkarteko kideen laguntza izan zuten izokinak askatzeko. Teknikariek otsailaren 5etik 8ra jarri zieten izokinei zenbatutako marka tikiak eta Endarlatsaraino jautsi dituzte, Ornoztik beheiti traba dextente topatzen ahal dituztelako.

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

abokatua • aseguru orokorrak

© 948 581468 • 948 580433 (etxekoa)

Frantziarako etorb. 12 • Amezialde 3B • ELBETE

**MENDI OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**



AMAIUR • © 948453060

**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galeria**

# Orabideako baserriendako zaborontziak jarriko ditu Udalak

Atsedenguneetako ontzietan zabor aunitz agertzen omen da

TTIPI-TTAPA

Balleko udalak zaborontziak jarriko ditu Orabidea inguruko leku ezberdinetan. Neurri hau, Herriko Etxeak Nafarroako Gobernuako In-gurumena Zaintzeko sailetik jasotako kexua-ren ondorioz hartu da.

Iruñetik igorritako idatzian adierazten zenez, «gan den urtean eta aurten, balleko atsedengunetan zaborrak uzten direla somatu du-gu». Gainera, zabor pol-tsa handiak uzten omen dira, leku hauetara joa-ten direnek erabiltzen ez dituzten gauzekin: «Kristal aunitz, gasna egiteko erabiltzen diren hondakinak...».

Zabor horiek Orabi-deako baserrietakoak izaten ahal direla ikusi-z, afera moldatzen saiatuko da Udala, Mikel Altzuart ingurumen zinegotziak adierazi duenez. Horretarako za-borontziak paratuko dituzte. «Baserri guzien ondoan jartzea ezinez-koa da, aunitz baitira eta tartean kilometro aunitz dira batzuetan».



## Debeku garaian oreina ehizatu dute hiru almandoztarrek

Polizia Foralean ekologia zaintzeaz arduratzen den sailak jakinari digu-nez, hiru almandoztarren aurkako denuntzia jarri dute. Hiru lagunek, debeku garaian –otsailaren 11n, zehazki– orein bat zatituta zeramaten be-raien autoan. Legearen arabera, 250.000 pezetako isuna jartzen ahal zaie eta ehiza-baimena hiru urterako kendu. Autoaren gidariari, ehiza-labana bat ere atxeman zitzaion.

Argazkia: Nafarroako Gobernuako Prentsa Bulegoa

## Lekaroz-Elizondo Institutuko irakasleak euskararen dekretuaren aurka

Nafarroako Admi-nistrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren aitzinean bere kezka eta ezados-tasun osoa azaldu zuen Lekaroz-Elizondo BHI-

ko Irakasle Klaustroak, otsailaren 14an eginda-ko bileran. Irakasleen ustez, «euskara Nafa-rrako berezko hizkuntza da eta Dekretu honen bidez, oraindik ere gehiago murriztu nahi da euskararen erabile-ra, Hizkuntzen Europar Urtean geure hizkuntza egoera itogarrira era-man nahian». Dekretu

honek ezartzen duena-ren arabera, euskarak, begi-bistatik desager-tzeaz gain, atzerriko edozein hizkuntzaren trataera izanen luke. Le-karoz-Elizondoko Ins-titutuko irakasleek dio-tenez, «hau ezin larri-agoa iruditzen zaigu, hizkuntza batek bizirau-teko hiri-esparruetara heldu behar da-eta».

## flash

### Herrilurren trukaketa

1.440 metro koadro herrilur, Oronozko eskola zaharraren in-guruko bertze 32 me-tro koadroekin trukatzeko baimena eman dio Nafarroako Gobernuak Balleko Udalari. 32 metro ko-adroak M<sup>a</sup> Josefa Aizpun Salaburre-nak dira eta trukake-taren xedea akats bat zuzentzea da, orain-go katastroa egitean eta Oronozko esko-la zaharra enkantean jarri zenean egin ze-na

### Arraiozek alkaterik gabe segitzen du

Lau batzarre egin on-dotik, alkaterik gabe segitzen dute Arraiozen. Otsaila-ren 25ean egin zen azkena, baina sei he-rritar bertzerik ez zi-ren agertu, tartean or-dezkorik harpatzen ez duen Juan Bautista Oteiza.

### Belateko tunelean

gero eta ur gehiago ateratzen dela eta ho-rrek sortzen ahal di-tuen arriskuei buruz galdetu dio Udalak Nafarroako Gober-nuko Herrilan Depart-amenduari.



**ZUBIRIA  
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)  
Faxa: 948 581274



**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



# Olhain Ikastolak ikastetxe berria estreinatu zuen otsailaren 12an

Izarra errugbi taldea, bertzalde, hirugarren mailara jautsiko da aurten

ANA MARI ETA FRED

Otsailaren 12an ikastolako hamabortz haurrek eskola berria estreinatu zuten. Eskola publikoaren beheko aldean herriak lokal haundi bat eraiki du. Hunen erdia herriko Olhain ikastolak baliatuko du eta bertze erdia Osasuna gimnastika elkarteak. Udan aisialdiko elkarteak erabili beharra du.

Bertzalde, hemendik goiti, ikastolak astero oren batez Manex Bergararen bisita ukanen du. Manex lehengo historio xaharrak kontatzen joanen da haurrei; hasi aintzin seguriz ahal gara haurrek momentu goxoak pasatuko dituztela, Manex artista baita. Biba zu!

## Ihauteriak

Herriko ihauteriak ederki iragan dira gan den otsailaren 24 eta 25ean. Gaztetxeak indar berezia egina zuen aurten kantuen eta dantzen nahi zuteneri erakusteko eta, ondorioz, gazteek biziki harrera ona izan dute larunbaterako etxetik itzuliari. Honetaz gain, sekulan ez bezala, ohiko euskal jantziak nagusi dira aurten.

Ibilbidea bururatu ondoren, plazan bildu dira gazteak (eta ez hain gazteak!), Bidekoa Urruñako taldeak dantzaldia eskaini duelarik.

Igandean aldiz, dantza ikusgarria izan zen goizean eta ondotik



Zanpantzarren epaiketara eta erretzea.

Eguerdi aldean, usaiako bazkaria izan da, eta denetan 80 presunek dastatu dute Olhain ikastolak Omordian prestatu apairua, Ezpeletako musikariek giroa alaitzen zutelarik.

Oraino indar batzuk atxikiak zituztenek bestan segitu dute arratsaldean, bereziki Bentetako itzulia eginez, eta bertze batzuk beren mozorroak auzoko herrietara erakustera joan dira.

## Basurde jatea

Larunbat huntan, martxoaren 10ean, herriko ihiztari eta laborariak bilduko dira basurde jateko. Berako ihiztari batzuk ere hor izatekoak dira, horien zakurrak esker atxematzen baituzte basurdeak. Bigarren urteko, afaria Pullman jatetxean egiten da (70 liberetan). Aperitifia sareko ihiztari elkarteak eskainiko



**Goitian, Olhain ikastolako ikasleak eta irakasleak, ikastetxe berriaren aitzinean. Beheitian, berriak, ihauterietako mozorroak ageri dira, plazan dantzan.**

du eta 150 lagun inguru bildu behar dira. Ihiztasoina nahiko ona atzeri zaiote aurten, iraila eta urtarrila artean 13 basurde hil baituzte, ia baino bi gehiago.

## Sagardotegi garaia

Martxoaren 17an, Gaztetxeak inguruko herrietako bertze gazteekin Gipuzkoako sagarnotegi batera ateraldia antolatzen du. Ondoko larunbatean,

martxoaren 24an Zirimolan taldeak du aldia. Batean edo bertzean bidaia autobusez egiten da, izenak Herriko Etxeko Edantegian eman behar dira.

## Izarra errugbi taldea 3. mailara jautsiko da

Azken aldian bezala, herriko errugbi taldeak ez dauku berri onik erraten oraingoan ere. Alabainan, lehen talde-

akazken partida 6-13 galdu du Pouillon-en aurka eta bigarrenak 14 eta 18. Gainera, aldi huntan ondorioak usaian baino latzagoak dira, mailari eusteko itxaropen guziak galdu baitira. Izan ere, aurtengo denboraldiaren bururatzeko lau neurketa badin badira ere, badakigu oraindik heldu den urtean Sarako Izarra 3. mailan arituko dela.

Hala ere, berri guziak ez dira txarrak Sarako errugbiarentzat, Pepito Elhorga saratarra (eta Sarako Izarrako jokalaririk ohia) deitua izan baita Frantziako selekzioan aritzeko Italiaren kontra, Sei Herrien arteko xapelgoaren kari. Zoritxarrez, berri ona jakin bezain laster min hartu du entrenamendu batean eta ez da beraz, aritzen ahalko. Dudarik ez dugu bertze parada bat ukanen duela, behar bada euskal selekzioarekin ere. Dena dela, zorrionak Pepito!

## Bozak martxoaren 18an eta 25ean

Aitzineko ttipi-ttapan aipatu bezala, bozak izanen ditugu martxoaren 18an eta 25ean. Herriko Etxeko bulegoak idekiak egonen dira goizeko 8etarik arratsaldeko 6ak arte, gelditu gabe. Herriko bozetan bigarren zerrenda bat aurkeztu da azken orduan, gazteek osatua. Zazpi hautagai aurkeztu dira kantonomendukoentzat.

## EZKONTZAK

**Jean Michel Ibarboure Eltzaurdia** eta **Sofia Gallego Aldaz**, Donibane Lohitzune eta Iruñekoa, Beran, otsailaren 17an.  
**Ignacio Ruiz Davila** eta **Idoia Martikorena Mindegia**, Bilbo eta Berakoa, otsailaren 18an.  
**Javier Martin Gartzia** eta **Nuria Baiona Iturbe**, Lesaka eta Etxalarkoa, otsailaren 24an.

## JAIOTZAK

**Ainara Fernandez Gartzia**, Berakoa, otsailaren 10ean.  
**Julen Jauregiberri**, Sarakoa, otsailaren 13an.  
**Manex Apezetxea Altsua**, Goizuetakoa, otsailaren 10ean.  
**Aida Rodriguez Iratzoki**, Zugarramurdikoa, otsailaren 27an.

## HERIOTZAK

**Jose Maria Maiora Inda**, Iruritakoa, otsailaren 15ean, 77 urte.  
**Angel Maria Pablo Plaza Alkain**, Iruritakoa, otsailaren 18an, 65 urte.  
**Asuncion Alkasena Elizegi**, Elbetekoa, otsailaren 22an, 87 urte.  
**Mercedes Larria**, Sarakoa, otsailaren 5ean, 78 urte.  
**Victoria Zabaleta Zestau**, Leityzakoa, otsailaren 25ean, 85 urte.

BERRKO  
ETXEGC  
EDIANTECIA

Mugabidea  
1001. SALA - 1001. SALA

**BAZTAN FUNERARIA**  
**ORAIN TANATORIO ZERBITZUA**  
 HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
 EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK  
 Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>  
 E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)


**ola**  
 SAGARDOTEGIA  
 250 lagun eserita  
 Klimatizatu  
 Sagardotegi menua  
 102 Meaka auzoa  
**20304 IRUN**  
 Tel: 943 623 130

Okindegia Jatetxea  
**Uxoia**  
 Pasa, 100. 1001. SALA • 1001. SALA • 1001. SALA

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

*Enkargatuz gero,  
bildotsa ogi-labeen errean.  
Goxo-goxoa!*

**ONASKA**  
 ERRETEGIA  
 Euskal sukaldaritza  
 Arrain eta haragia brasan  
 Bagordiko bidean • ELBETE  
 © 948 45 20 88



Txarutako pilotari batzuk eta erakusleak, joan den urtean lortutako txapel eta sariekin. Arg.: Zaldua



## Herriarteko txapelak ez du ahotsik Nafarroako Federazioan

Duela bortz urte sortu zen Txaruta pilota elkarte, Baztan eta Malerrekako pilotariak bilduz eta gaur egun 240 pilotari ari dira bere izenean. Baina horrenbetez gazte mugiarazten duen elkarte batek ez du ahotsik Nafarroako Pilota Federazioan. Izan ere, berriki egin diren hauteskudeetan, batzarretik kanpo gelditu dira inguru honetako elkarte guztiak.

# Txaruta pilota taldeak txapel uzta ederra lortu zuen 2000. urtean

■ 52 txapel jantzi zituzten Euskal Herrian jokaturako txapelketetan

### TTIPI-TTAPA

Txaruta Pilota Elkar-teko pilotariak 52 sari eta txapel lortu zituzten gan den urtean Baztan eta Malerrekatik kanpo, Nafarroa eta Euskal Herrian jokaturako txapelketetan. 2000. urteko balantzea, beraz, kasik ezin hobea da Txarutakoentzat. Azpimarratzekoa da taldeak Nafarroako eta Euskal Herriko Herriarteko txapelketak irabazi zituela. Gazte mailan, Toni Uharte eta Josu Baleztena bikote beldurgarria osatu zuten eta Euskadiko Ligan, Santo Cristo de Otadia txapelketan eta ETB-Diario Vasco txapelketan irabazle suertatu ziren. Bakarka, Iñaki Eskudero irabazi zuen Baque txapelketa gazte mailan eta kadetetan, Unai Arraztoa azpitxapelak irabazi zuen Elgetan. Joan den urtea opa-roa izan bazen, aurtengoan ez dira Txarutakoak gaizki hasi. Nafarroako Neguko txapelketatik sei txapel ekarri zituzten. Euskadiko Kluben arteko txapelketan ere ederki ari dira eta kadetetan, finala jokatuz zuten joan den or-tziralean Iñaki Larralde lesakarrak eta Xabier Elizalde iturendarrak.

pelketan eta ETB-Diario Vasco txapelketan irabazle suertatu ziren. Bakarka, Iñaki Eskudero irabazi zuen Baque txapelketa gazte mailan eta kadetetan, Unai Arraztoa azpitxapelak irabazi zuen Elgetan. Joan den urtea opa-roa izan bazen, aurtengoan ez dira Txarutakoak gaizki hasi. Nafarroako Neguko txapelketatik sei txapel ekarri zituzten. Euskadiko Kluben arteko txapelketan ere ederki ari dira eta kadetetan, finala jokatuz zuten joan den or-tziralean Iñaki Larralde lesakarrak eta Xabier Elizalde iturendarrak.

TXAPELKETAK	TXAPELDUNAK	AZPITXAPELDUNAK
NAFARROAKO NEGUKO TXAPELKETA	Infantil: O. Urrutia - L. Ibarra	Ume: X. Madariaga - E. Urrutia Haur: A. Madariaga - I. Arregi Infantil: M. Iraola - G. Garmendia
EUSKADIKO LIGA ZIZUR	Gazteak: T. Uharte - J. Baleztena 92: Aritz Juanenea 90: Xabier Madariaga 88: Igor Arregi Sub-19: Josu Baleztena	92: Anton Jauregi 89: Patxi Barberena 87: Mikel Iraola
ALTSASU	Kadete: U. Arraztoa - X. Arraztoa	Ume: J. Arretxea - X. Madariaga Haur: A. Goñi - I. Arregi Infantil: M. Iraola - L. Ibarra
ETXAURI	Haur: Asier Goñi - Igor Arregi Kad: I. Larralde - J. Erasó Gazte: G. Elizalde - I. Eskudero	
ELGETA		Kadete: Unai Arraztoa
NAFARROAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA	Haur: Asier Goñi - Igor Arregi Infantil: K. Plaza - X. Arraztoa Gazte: J. Baleztena - T. Uharte Heldu: I. Altzugarai - M. Baleztena	
EUSKADIKO HERRIARTEKO TXAPELKETA	Kadete: U. Arraztoa - X. Arraztoa Gazte: J. Baleztena - T. Uharte Heldu: I. Altzugarai - M. Baleztena	
STO. Cº OTADIA IRURTZUN	Gazte: J. Baleztena - T. Uharte Ume: J. Arretxea - X. Madariaga	Kadete: U. Arraztoa - I. Etxegarai Gazte: P. Jaurena - T. Uharte Heldu: P. Jaurena - Jaunarena
GARTZARON	Haur: J. Babaze - I. Arregi Gazte: G. Elizalde - I. Eskudero	
DONOSTI GAIN BURLATA	Gazte: Toni Uharte - Mazkieran Txiki: J. Iraola - A. Juanenea Ume: M. Irigoien - J. Arretxea	Txiki: M. Garisoain - A. Jauregi Haur: J. Babaze - I. Arregi Infantil: O. Urrutia - L. Ibarra
ETB-Diario Vasco TAFALLA	Gazte: J. Baleztena - T. Uharte Haur: Asier Goñi - Igor Arregi Kadete: I. Larralde - J. Erasó	Ume: M. Irigoien - J. Arretxea Infantil: M. Iraola - L. Ibarra
UHARTE	Sub 18: Toni Uharte Sub 23: Josu Baleztena	
BAQUE	Gazte: Iñaki Eskudero	



# Laugarren Banakako Urrezko Aizkora txapelketa hasia da

- Larretxea eta Mindegiaz gain, Etxeberria eta Jaunarena ere ari dira
- Donezteben bi saio egingen dira, bat lehen faseko finala

## TTIPI-TTAPA

Otsailaren 18an hasi zen Arabako Espejo herrian IV. Urrezko Aizkora Gurea Kaiku Sari Nagusia. Iazkoarekin konparatuz, aldaketa nabarmenak izanen ditu aurtengo sari-ketak. Joan den urtean, hamar aizkolari aritu ziren eta aurten hamalau hasi dira, bigarren mailakoei ere aukera bat eskainiz. Espejon egindako saioan Txapartegi nagusitu zitzaion Azurmendi eta Arria V.aren kontra lehiatuko da larunbat honetan Okondon (Araba). Irabazleak Arrospideren kontra jokatu beharko du martxoaren 25ean Azpeitian. Irabazleak, apirilaren 15ean Donezteben izanen den lehen faseko finalerako lehen txartela eskuratu du. Bertze aldetik, otsailaren 24an Barberena eta Antonio Jaunarena zubietarra aritu ziren Lekunberrin. Irabazle suertatu zen Bar-



Otsailaren 15ean aurkeztu zen Euskal Telebistak lurretan dituen estudioetan IV. Urrezko Aizkora.

Argazkia: Egunkaria

berenak martxoaren 18an jokatu du Getxon Felix Etxeberria sunbildarraren kontra. Irabazleak Lopez izanen du arerio apirilaren 1ean Eltziegion (Araba). Saio hau irabazten duenak Senosiainen kontra jokatu du apirilaren 8an Aramaion eta hortik aterako da Doneztebeko bigarren finalista.

Felix Etxeberria sunbildarra gustora ageri

zen, azkenean beretaz oroitu direlako. «*Arriarekin izanen dudana apostua dela eta, ongi prestatuta nago eta saiatuko naiz lehen faseko finalera ailegatzeko*».

### SEI AIZKOLARI ONENAK BI MULTZOKO LIGAXKAN

Bigarren fasea, hiru-ena aizkolariko bi multzotan jokatu da. Lehenbizikoa Nazabal,

Larretxea eta Olasagasti lehiatuko dira, guziak guzien kontra. Bertze multzoan, Peñagarikano, Mindegia eta lehen faseko irabazlea ariko dira, hauek ere ligaxkan. Mindegia saio bat Donezteben ikusteko aukera izanen da, maiatzaren 27an.

Multzo bakoitzeko onenek jokatu dute finala Azpeitian ekainaren 10ean.

## Bortzirietako futbol derbi nagusia martxoaren 18an Mastegin

Ohorea ez ezik, garrantzi handiko hiru puntu jokoan izanen dira martxoaren 18an Lesakako zelaian. Gure Txokoak ez du oraindik partidurik galdu eta hamaka puntuko abantaila dio bigarren den Beti Gazteri. Lehenbizikoa zuzenean igoko da eta bigarrenak promozioa jokatu beharko du. Punta puntako derbia, beraz.



Lehen itzulian Beran jokatuako partiduan Gure Txokoak 2 eta 1 irabazi zion Beti Gazteri. Goiko



### ❖ Jose Jabier Taberna

pilotari lesakarrari baja eman zion Asegarge enpresak. Beraz, otsailaren 11n Tafallan irabazi zuen partida izan da Tabernak Asegarge-rekin jokatu duen azkena. 1993ko maiatzaren 28an Seguran debuta egin zuenetik hainbat partidu jokatu ditu Tabernak. Garairik onena 1999ko udaberrian izan zuen, estelarretan ere sartu baitzen. Geroztik, ordea, ez du suerterik izan lesioekin. Dena den, Aspek berekin aritzeko aukera eskaini dio, bi urteko kontratua egingez.

### ❖ Baztan-Bidasoako 9. futbito txapelketa

Martxoaren 11n jokatu dira Errekak antolatutako txapelketaren finalerdiak (arratsaldeko 5etan eta 6etan) eta martxoaren 18an finala (6etan) eta hirugarren posturako lehia (5etan) jokatu dira Doneztebeko kiroldegian.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BERTSOLARITZA

#### ELIZONDO

##### ► Martxoak 11

Arratsaldeko 4,30etan Antxitonea trinketean eginen da Nafarroako Bertsolari Txapelketa lehen saioa. Mikel Altzuart, Ekhone Etxepeteleku, Iñigo Ibarra, Jean Louis Harinordoki «Laka», Fermin Mihura eta Julen Zelaieta ariko dira bertsoetan.

##### ► Martxoak 18

Leitzako zineman, finalerdia. Xabier Legarreta, Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Xabier Terreros, kanporaketa gaingitu duten bertze bi bertsolariarekin batera ariko dira.

### KIROLAK

#### LESAKA

##### ► Martxoaren 10ean

Euskal Herriko sokatira txapelketako saio bat jokatu da arratsaldeko 5etan pilotalekuan.

### BASURDE JATEA

#### SARA

##### ► Martxoaren 10ean

Pullman jatekxan eginen da herriko ihiztari eta laborarien artean. 70 libera gostako da otordua.

### ZINEMA

#### LEITZA

##### ► Martxoaren 9an

La Comunidad, 22,30etan.

##### ► Martxoaren 11n

La Comunidad, 19,30etan.

##### ► Martxoaren 16an

Memento, 22,30etan.

##### ► Martxoaren 18an

Memento, 19,30etan.

### TELEBISTAKO TXOKOA



## Iñauterietako bestondoaren ondotik, bertsoak eta kirola

Iñauterietan hainbetez jan eta edan ondotik gorputza garbitzeko tenorea ailegatu zaigu denori, baina ez pentsa baraualdian sartuko garenik. Alderantziz, bestondoaren kontra bertzelako soluzioa eskainiko dizuegu:

Alde batetik heldu den hilaren 11n Elizondon eginen den Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehendabiziko kanporaketa aztertuko dugu hurrengo egunean, astelehenean. Baina dudarik gabe hilabete honetan ikusmin gehien sortuko duena Bortzirietako bi futbol talde nagusien arteko lehia izanen da. Hilaren 18an jokatu da eta telebistan 20an ikusi ahal izanen duzue 19a besta eguna delakoz.

...ETA EMAKUMEA-REN ASTEA

Aste honetan bertan eskualdeko emakume taldeek antolatutuzten ekitaldien berri emanen dizuegu.



Elurraren ondorioz emisioa moztu zen joan den astean.

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (19 kilo): 10.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 240 pta/k.
- **Zerramak**: 140/150 pta./kiloa, bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak** 200/250 k.
- **Idixkoak/Urruxak**: Pta/kg. Kanal Extra .....555-565
- 1.koa .....515-525
- 2.koa .....465-475
- **Aretze gizenak** 320 kilotik goiti
- **Idixkoak/Urruxak**: Pta/kg. Kanal Extra .....465-475
- 1.koa .....425-335
- 2.koa .....375-390

#### • Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak**: urruxak 20.000-22.000 eta idixkoak 31.000-33.000 Pta.

**Mestizoak**: urruxak 20.000-22.000 eta idixkoak 32.000-34.000 Pta.

#### Zaldikoak:

Sortuberriak: 515-525 Pta./Kg.

Zaldi eta behorrak: 335-345 Pta./Kg.

#### Bildotsak:

6-8 kilokoa .....950-1.000

8-10 kilokoa .....825-875

DATUAK: NAFARROAKO GOBERNUA

### DISKAK



«Skunk #1»

SKUNK

SKUNK DISKAK

Bortzehun kontzertu baino gehiago emanak dituzte dagoeneko Iparraldeko Skunk taldekoek. Idiazabalen bezala Quebec-en, Alemanian, Breizhen, Libanon, Ipar Irlanda eta bertze hamaka lekutan egonak dira jotzen. Errate baterako, hamargarren urtebetetzea Beiruteko Chayla estadioan ospatu zuen taldeak. Punk, rock, hardcore, reggae, ska doinuak entzun daitezke Skunken ema-

naldi bizietan. Eta euskara, euskaraz kantatzen du talde honek-eta, noizean behin gaztelera eta frantsesa erabili arren. «Enbata Tour 2000» biran zuzenean grabatutako hamasei kanta jaso dituzte eta bertze bortzak Katarain-Elkar estudiantan grabatuak dira. Kanta gehienak besta girokoak dira: «Rafaren farra Nafarroan», «Herri Urrats 96», «Edan nuen gau guztian»...

# Jokalari patologikoak

**Jokoaren aitzinean bere gogoa kontrolatzerik ez duen pertsonari deitzen zaio jokalarri patologikoa. Joku "arriskutsuenak" irabazpide ekonomikoa ematen dutenak dira: txanpon-makinak, bingoa, apostuak...**

Ezin da beti asmatu zein pertsona pasatuko den jokatik eritasunera, baina pertsona batek arrisku gehiago izateko ezaugarri batzuk daude: gizona gaztea, gaztea (18-30 urte artekoa), kultura maila txikia edo ertaina izatea eta orohar egoera ekonomiko txarrean egotea.

### Nola ezagutu jokalarri patologikoa:

- Pertsona horiek jokatzeo abildade berezia dutela uste dute, zorte aunitz dutela.
- Jokatzeo maiztasuna handitzen dute eta horrekin batera galerak eta zorrak. Dena den, ez ditu kontuan hartzen galdutako sosa, irabazitako bakarrik ikusten du.
- Sumindu egiten dira ezin badute jokatu.
- Familia eta lagunetat urrundu egiten dira.
- Jokoan edo jokatzen segitzeko dirua nondik lortu dute pentsamendu bakarra.

### Zergatik segitzen du jokatzen?

Idea-asoziazioa du buruan. Gaizki sentitzen denean jokatzen hasi eta irabazten badu ongi sentituko da, eta orduan joko sentsazio horrekin erlazionatuko du. Zirkulu itxia da, ordea: orduan eta gehiago jokatu orduan eta makurrago sentituko da, eta gero eta makurrago sentitu orduan



Jokatzeo abildade berezia duela uste du jokalarri patologikoa.

*Gaizki sentitzen denean jokatzen hasi eta irabazten badu ongi sentituko da, eta orduan joko sentsazio horrekin erlazionatuko du.*

eta gehiago jokatuko du. Gainera, denborarekin, usain eta soinu batzuk jokatzearen plazer-sentsazioarekin lotzen ditu, eta beraz, usain eta kolore hoiek somatzean jokatzeo gogoa sartuko zaio. Arazo honek ondorio ugari ditu, familiako giroan, lanekoan, profesionalean eta gizarte-harremanetan orohar. Soluzioa bilatzeko nahitanahiezkoa da eri dagoela onartzea eta profesionalen esku jartzea. Behar-beharrezkoa da, halaber, lagun eta senitartekoan laguntza (honek ez du erran nahi honen zorrak beren gain hartu behar dituztenik, hau erabat kaltegarria baita). Arazo hau saihesteko hezkuntza da garrantzitsua. Haurrari ez zaizkio horrelako mezua eman behar: "sari hau irabaziko bagenu, akabo gure arazo guziak" edo "hobe-

rena zara irabazi duzulako"... Haurrei erakutsi behar zaie pertsona bat miresteo arrazoiak ez dela irabaztea, egingarriak saiakera baizik. Ikasi behar dute pertsona ez dela aldatzen jokoetan irabazi nahiz galdu.

### Jokalarri patologikoaren diagnostiko azkarra

Blas Bombín Mínguez doktoreak honako metodo hau proposatzen du jokalarri patologikoari antzemateko:

- Galdera hauetako 2ri baietz erantzunez gero litekeena da jokalarri patologikoa izatea, eta 3 edo 4ri baietzkoa emanez gero gauza segurua da.
- Zure jokorako zaletasuna tikitutu beharko zenukelako sentsazioa duzu?
- Bertzeen aitzinean zure jokorako zaletasuna ukatzen duzue zure gehiegikeriari buruzko kritikei beldur zarelaiko?
- Arazo psikologikorik, familiako arazorik, arazo ekonomikorik edo laneko arazorik izan duzue jokoarengatik?
- Jokatzeo behar geldiezina somatzen duzue zure arazoak gorabehera?

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KORRIKA KULTURALA ELIZONDO

► **Martxoaren 11n** Eliz-aretoan, arratsaldeko 6,30etatik aitzinera, «Bar Puerto» ikuskizuna. Literatur testuak, zuzeneko musika eta bideoa, Mikel Urdangarin, Kirmen Uribe eta Josu Eizagirreren eskutik.

## LEITZA

► **Martxoaren 20an** Koldo Zuazoren «Euskararen sendaberrak» liburuaren arukezpena liburutegian, arratsaldeko 7,30etan.

## TOPAGUNEAK

### DONEZTEBE

► **Martxoaren 10ean** Baztan-Bidasoako gay eta lesbianen bigarren topagunean egingen da, arratsaldeko 4etan Kaxerna ostatuan.

## LEITZA

► **Martxoaren 16 eta 17an** Droga menpekotasunaren prebentzioarako topaguneak. Ostiralean, 20,30etan, antzerkia zineman, eta bihararmunean gazte eztabaida Aurrera elkartean, arratsaldeko 4etatik aitzinera.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tf.ora. deitu behar da

### ► **Martxoaren 5etik**

**11ra** Etxalar, NARBARTe, ELIZONDO (Lezaun) eta GOIZUETA.

► **Martxoaren 12tik 18ra** Igantzi, Doneztebe, ELIZONDO (Lezaun) eta GOIZUETA.

► **Martxoaren 19tik 25era** Lesaka, Sunbilla, ELIZONDO (Iturralde), LEITZA eta GOIZUETA.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa** igorri faxez edo postaz.

## ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan emateko  
104. Errentan hartzeko  
105. Etxe konpartituak  
106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

107. Saldu  
108. Erosi  
109. Errentan emateko  
110. Errentan hartzeko  
111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

112. Saldu  
113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

114. Errentan emateko  
115. Errentan hartzeko  
116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak

202. Pintoreak  
203. Elektrizistak  
204. Iturginak  
205. Zurginak  
206. Mendi lanak  
207. Garraioak

208. Bertzelakoak

## LANA

301. Eskariak  
302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak  
402. Akademiak

## MOTORRA

501. Salerosketak  
502. Tailerrak

## ANIMALIAK

601. Emateko  
602. Salerosketak  
603. Klinikak

## DENETARIK

701. Galdu / aurkituak  
702. Salerosketak  
703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

801. Agurrak

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

## BULDAIN

LEITZA. Manuel Lasarten, garajeak salgai, ura eta argiarekin. Oso onak.

☎ 649 476 615

## BULDAIN

LEITZA. Autobia inguruan pabilo industrialak salgai. Eskatu informazioa.

☎ 649 476 615

BERA. 79 m<sup>2</sup>ko pisu mobilizatua salgai. ☎ 948 630 943.

LEITZA. Pisu mobilizatua salgai, kalefakzioa eta ganbararekin. 13.500.000 pta. ☎ 948 510 169.

LEITZA. Pisua salgai Arekozubi auzoan. ☎ 948 610 663.

## ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841  
607 978 656

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

BERA. Kanttonberri karrirkan pisua errentan emateko. ☎ 600 767 222.

BERA. Ibaialdea 6.ean pisua errentan emateko. Mobilizatu gabea. ☎ 948 630 870.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

IRUÑEA. Bi neska behar dira pisua osatzeko Iturrama auzoan. ☎ 948 176 517 eta 948 615 044.

IRUÑEA. Pertsona bat behar dugu Alde Zaharrean pisua osatzeko. Merkea. ☎ 630 484 271 (Maite, gauez).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

LESAKA. Bittiria karikan lur-azpiko garajea salgai. ☎ 948 637 894 (arratsalde).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Batzoki ostatu-jatetxea errentan ematen da. Baldintza hagit interesgarriak. ☎ 948 627 522.

SARA. 800 m<sup>2</sup>ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m<sup>2</sup>ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m<sup>2</sup>a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

## LANA

### 301 ESKAINTZAK

Neska behar da Irunen etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. ☎ 943 615 839.

Sunbillan neska edo emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurra zaintzeko. ☎ 948 451 666 (arratsaldeko 9etatik 11tara).

Neska edo mutila behar da Ibadin lan egiteko, asruetan eta udan. Frantse sakiena. ☎ 948 630 175 eta 948 630 957.

Injeneru Tekniko Industriala behar da, mekanika eta elektrizitatean aditua, produkzio sailean lan egiteko, egurrarekin lan egiten duen enpresa batean. ☎ 948 451 630.

Egurrarekin zerikusia duen enpresa baterako langileak behar dira produkzio katean turno desberdinean lan egiteko. Mekanika arloa ezagutzea interesgarria da. ☎ 948 451 630.

Batzango jatetxe batean zerbitzaria behar da larunbat gaua eta igande eguerdian lanean aritzeko. Esperientzia badu, hobe. ☎ 619 829 289.

Berako enpresa bateko mutiko bat behar du lanean aritzeko. Informazioa BILTARTEn. ☎ 619 829 289.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

MAN 9.136 kamioiasalgai, NA-AK, txartel nazionalarekin. Egoera onean. ☎ 948 453 007 (8etatik 10etara).



Quad edo lau zirrikako mendiko motoa salgai. Polaris markakoa, 2 urtekoa, matrikulatua. Automatikoa da, oso azkarra. ☎ 656 774 890.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

## MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

### Bigarren eskuko kotxeak:

Terrano 125 cv - aire egokitua,  
306 TD, Chrysler Voyager eta  
Rover TD - aire egokitua.  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



## Maderas GOMEN

- Era guzietako atekak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

## ANIMALIAK

### 601 EMATEKO

Aleman artzai-zakurku-meak opari emanen nituzke. ☎ 948 630 048.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Bi urteko biahari muturgorri salgai. ☎ 948 451 696.

Ardi eta behien deretxoak salgai. ☎ 639 670 231 (arratseko 9etatik aitzine-  
ra deitu).



Zakurtxo bat galdu dugu Lesakan. ☎ 948 637 831.

Arratoi xakurra aurkitu dugu Eztegaran. ☎ 948 630 741 edo 948 630 794.

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

Betaurrekoak agertu dira Lesakako Osasun Etxearen inguruan. Metalezko funda marroia dute. ☎ 948 638 000 (goizetan).

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Pinu insignis landareak salgai. ☎ 653 749 986.

Bi ohe ttiki eta egurrezko sukaldea salgai. ☎ 948 631 351 eta 686 018 478.

Belarra salgai. ☎ 639 670 231.

**LODITASUNA**  
EDAN ETA ARINDU!  
Zure pisua kontrolatua  
gustoko janak baztertu gabe  
☎ 948 13 11 36

## KULTURKARI

### Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL AGENZIA

### ■ Zurich Aseguruak

- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

### ■ Lan aholkularitza

- Nomina eta Aseguru Sozialak

### ■ Aholkularitza fiskala

- Errenta Deklarazioak, IVA...

### ■ Inmobiliaria

- Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

### ■ Gestoria

- Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

# 2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora





## URTEBETETZEAK


Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

### OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 40 Ptako 13 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTIPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobre bat eta helbidea ere bidali.



**Ainara Antuñeta Zelaia** sunbildarrak 3 urte beteko ditu martxoaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**Joel Gil Goienetxe** lesakarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 10ean. Muxu bat aita, ama eta Elizondo eta Lesakako familiaren partetik.



**Bidane Mada-riaga Iriarte** sunbildarrak 3 urte bete ditu otsailaren 22an. Zorionak eta musu handi bat Arantzako familiaren partetik.



**Maite Telle-txea Martia-rena** beratarak 12 urte bete ditu martxoaren 6an. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Leireren partetik.



**Maitane Gar-tzia** beratarak 16 urte bete ditu martxoaren 2an. Zorionak hirukotearen partez, eta ez pikatu, gutxi zanean da!!



**Julen Elizalde Elizagoien** amaiurtarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 10ean. Zorionak familia guziaren partetik.



**Mikel Larre-txea Lukan-bio** arantzarrak 3 urte bete ditu martxoaren 3an. Zorionak eta 3 muxu familiaren partetik.



**Maria Angeles Gonzalez** arantzarrak urteak bete ditu martxoaren 1ean. Zorionak seme-alaben eta ilobaren partetik.




**Irene Zelaia Iriarte** beratarak 17 urte bete ditu martxoaren 6an. Zorionak aita, ama eta Julenen partetik. Muxu handi bat.



**Unai Baraza-balek** martxoaren 10ean 21 urte beteko ditu. Zorionak eta aupa Unai! 2001. urtea hirea duk! Hire jarraitzaile etsuak.



Berriozarko **Oier** eta **Xuban Kañamares Ibarra** martxoaren 15ean 5 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**Izaskun Goñi** donamariarrak 12 urte beteko ditu martxoaren 13an. Zorionak aita, ama, Inigo eta Arraiozko familia guziaren partetik.



**Miren Sein Goñi** ittundarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 17an. Aunitz urtez eta muxu bat familia guziaren partetik.



**Erika Txoperena Aldanondo** beratarak 11 urte bete ditu martxoaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



**Beñati I.ri** zorionak martxoaren 25ean 14 urte beteko dituelako. Lagun berexi baten partetik.



**Elisabeth Lar-raburu Cervi-ño** gazteluarrak 10 urte beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak izeba eta familiaren partetik. Ongi pasa!



**Lorea** eta **Ainhoa Lasa Zabala** goizuetarrak martxoaren 13an urtea beteko dute. Zorionak eta muxu bana bieri Goizuetako familiaren partetik.

# ttipi-ttapa



# Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo famiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

**(+34) 948 631 188**



**NEKAZARITZA  
FORMAKUNTZA**

NAFARRROAKO KUDEAKETA INSTITUTU TEKNIKOKAK

KONTULARITZA SINPLIFIKATUA  
ETA NEKAZARITZA FISKALTZARI  
buruzko ikastaroa, abeltzain  
guziei zuzendua.

- **Iraupena:** 48 ordu (12 egun).
- **Orduetia:** 10etatik 14etara.
- **Tokia:** Doneztebeko Juansenea etxea
- **Egunak:** Martxoaren 20, 21, 22, 26, 27, 28 eta 29a. Apirilaren 3, 5, 9, 10 eta 11.
- **Prezioa:** 5.000 pta.

Ikastaroetan parte hartzeko interesa baduzu deitu martxoaren 14a baino lehen 948 278 011 telefonora (I.T.G. Formakuntza), izena emateko.



**ALMACO  
BAZTAN**

**ETXEGINTZA ETA**

**SANEAMENDU MATERIALAK**



↓ Zeramikak



↓ Tximeneak



↓ Velux-ak



↓ Erremintak

## ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA



- ➔ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➔ Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➔ 14 urteko esperientzia
- ➔ Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hobereana



**GIZAKIAK BETIDANIK JAKIN  
DU SILOTITEREKIN  
BILTZEA DELA  
KONTSERBATZEKO  
MODURIK  
HOBERENA**



**AROZ - BERRI, S.A.**

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • Tel: 948 581 021 - 948 580 258 • Fax: 948452103 • 31730 IRURITA



**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

**4.000 m<sup>2</sup>ko  
erakusketa  
mobeak ikusteko  
Larumbat arratsaldetan irekia**



**Sukaldeak  
Egongelak  
Logelak  
Bainugelak**

